

ESKUALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO GUTUNARI BEGIRADA BAT EUSKARATIK ETA EUSKAL HERRITIK

Patxi Baztarrিকা Galparsoro*

LABURPENEA

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna nazioarteko tratatu bat da, eta bere helburuak printzipioak eta konpromisoak bete beharrekoak dira Gutuna onartu eta berretsi duten Europako Estatuentzat. Gutunak eragin positiboa izan du bere babes eremuan dauden hizkuntzen bilakaeran, nahiz neurri desberdinean eragin duen hizkuntza batzuetan eta besteetan. Positiboa izan da, baita ere, euskara biziberritzeko prozesua sendotzeko. Artikulu honek gogoeta bat eskaintzen du Gutunak euskararentzat izandako balio eta onurei buruz, bai eta haren mugei buruz ere; ondorioz, planteatzen du Gutuna hobetzea eta eguneratzea komeni dela, kontuan hartuz dituen gabeziak eta, halaber, gutxiengo hizkuntzek eta hizkuntza gutxituek (edo, hobeto esanda, gutxiengo hizkuntza komunitateek eta hizkuntza komunitate gutxituek) Espainiako eta Europako testuinguruetan dituzten eronkak. Bestalde, Gutunari euskararen ikuspegitik egindako begiratu honek ezin du saihestu euskararen hiru lurraldeetan Gutunak aplikazio desberdina izan duela; horregatik, lehenbiziko orrialdeetan, Gutunak Ipar Euskal Herria eta Nafarroako Foru Komunitatean izan duen eraginaz dihardu artikuluak, nahiz eta analisi xeheena Euskadiko Autonomia Erkidegoari buruzkoa den.

Gutunaren eronkei buruzko gogoeta egin aurretik, artikuluan analisi bat egiten da Gutunak Euskadin eta Espainiako Estatuan duen aplikazioa baldintzatzen duten elementu funtsezkoen gainean, eta xeheki aztertzen dira Gutunak Euskadin izan dituen irismena eta betetze maila altua. Gutunak Euskadin duen aplikazioa argi-ilunen prozesu bat da: argi-ilun horietan argiak nagusitzen dira nabarmen, baina badira izatera estrukturalako itzal batzuk ere, funtsean Estatuaren erakunde zentralen eskumen alorretik datozenak. Halaber, artikuluan azpimarratzen da beharrezkoa dela Espainiako Estatuak eta Europar Batasunak hizkuntza politika propioak garatzea, estatu hizkuntzaz haragoko hizkuntza aniztasun erreala sustatzeko.

Gako-hitzak: Hizkuntzen Gutuna; ebaluazioa; Espainiako Estatuak; euskara; Euskadi; EAE; Nafarroa, Ipar Euskal Herria; Europa; hizkuntza aniztasuna; betetze maila; txostena

A LOOK AT THE EUROPEAN CHARTER FOR REGIONAL OR MINORITY LANGUAGES (ECRML) FROM THE POINT OF VIEW OF THE BASQUE LANGUAGE AND THE BASQUE COUNTRY

Abstract

The European Charter for Regional or Minority Languages (hereinafter the ECRML or Charter) is an international treaty whose formally accepted objectives, principles and undertakings are binding for those European States which have ratified it. The Charter has had a positive, albeit unbalanced, impact on the future of the languages under its protection. It has also been positive to the extent that it has provided the basis for revitalisation of the use of the Basque language (Euskara in the original language). This paper presents a reflection on how the ECRML has benefitted the Basque language, but also on its limitations, and, in light of the results, on the possible need to improve and revise the Charter in view of its shortcomings and the challenges facing minority and minoritised languages – or rather minority and minoritised linguistic communities – in Spain and Europe. If the ECRML is considered from the point of view of the Basque language, it is clear that the implementation of the Charter has not been uniform throughout the three regions where the Basque language is spoken. The first pages of this paper therefore focus on the impact that the Charter has had in the Northern Basque Country and the Chartered Community of Navarre, although the rest of the paper provides a detailed analysis of the situation in the Basque Autonomous Community. Before reflecting on the challenges, the paper analyses the fundamental elements of the Charter which have affected its implementation in the Basque Autonomous Community and the Spanish State, and provides a detailed analysis of the scope and high degree of compliance with the Charter in the former. The implementation of the Charter in the Basque Autonomous Community has not been an outright success but rather has entailed a process of light and dark in which light has clearly prevailed. Nevertheless, the dark, in the form of structural failings, exists and relates primarily to the sphere of competence corresponding to Spain's central institutions. Emphasis is also placed on the need for language policies within the Spanish State and European Union to promote true linguistic diversity in the aforementioned regions, that is, policies which encompass more than just official languages at state level.

Keywords: ECRML; evaluation; Spanish State; Basque language; Basque Autonomous Community; Chartered Community of Navarre; Northern Basque Country; Europe; linguistic diversity; compliance

*Patxi Baztarrিকা Galparsoro, UPV-EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako lizentziatua, hizkuntza plangintzan aditua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea (2005-2009 eta 2012-2016 aldietan) eta NPLDKo presidentea (2015-2017) izan da. px.baztarrিকা@gmail.com

2018.01.31n jasotako artikulua. Ebaluazio itsua: 2018.02.21. Amaierako bertsioa onartutako data: 2018.03.21.

Zitazio gomendatua: BAZTARRIKA GALPARSORO, PATXI. "Eskualdeetako edo eremu urriko Hizkuntzen Europako Gutunari begirada bat euskaratik eta Euskal Herritik". *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language and Law*, 69 zk., 2018, or. 52-77. DOI: [10.2436/rld.i69.2018.3096](https://doi.org/10.2436/rld.i69.2018.3096).

Aurkibidea

1 Atariko ohar batzuk, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak euskararen hiru lurraldeetan izan duen eragin desberdinaren argigarri

1.1 Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna: euskarak Ipar Euskal Herrian ez duen arau bat

1.2 Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren aplikazio maila desberdinak Nafarroako Foru Komunitatean

2 Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren aplikazioa eta betetze maila EAEn

2.1 Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren ezaugarri nagusiak, Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta Espainiako Estatuan duen aplikazioari eragiten diotenak

2.2 Konpromisoen irismena eta betetze maila (altua) Euskadiko Autonomia Erkidegoan

3 Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna hizkuntza aniztasuna kudeatzeko erronka berrien aurrean, hizkuntza ez hegemonikoak eta gutxituak kontuan hartuta

BIBLIOGRAFIA

Kontsultatutako dokumentuak

Hogei urte dira Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna (aurrerantzean Gutuna)¹ indarrean sartu zela. Aitzakia horretaz baliatuta, gogoeta bat partekatu nahi nuke, Gutunak euskararentzat duen balioa eta dakartzan onurak aztertzeko; baita dituen mugak aztertzeko ere. Gogoeta honetan, halaber, Gutunak eguneratua izatea mereziko lukeela arrazoituko dut, kontuan hartuz Espainiaren eta Europaren testuinguruetan gutxiengo hizkuntzek eta hizkuntza gutxituek (edo, agian hobeto esanda, gutxiengo hizkuntza komunitateek eta hizkuntza komunitate gutxituek)² gaur dagoeneko dituzten erronkak eta etorkizun hurbilean izango dituztenak. Gutunak planteatzen dituen erronkak, jakina, ez dira berariaz edo bakarrik euskararenak, nahiz eta erronka horietan antzeman daitezkeen euskarari dagozkion hainbat ezaugarri berezi. Horregatik, hain zuzen ere, euskararen ikuspegitik Gutunari buruzko gogoeta egiterakoan ezin dugu begiratu euskararen egoerara edo euskararen lurraldeetara bakarrik; aitzitik, kontuan hartu behar ditugu Espainiako eta Europako testuinguruak ere.³

1 Atariko ohar batzuk, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak euskararen hiru lurraldeetan izan duen eragin desberdinaren argigarri

Hasieratik argitu nahi dut Gutunak euskararentzat duen balioari buruzko gogoeta hau funtsean —baina ez bakarrik— oinarritu dudala euskarak Euskadiko Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean EAE) duen egoeran, hain zuzen ere, euskaldunen unibertsoa osatzen duten 943.000 hiztunen % 85,8 dituen lurralde esparruan. Ohar garrantzitsua da hori; izan ere, joan den mendeko laurogeiko hamarkadatik hona euskararen bilakaera soziala arunt desberdina izan da hiru eremu juridiko-administratibootan (EAE, Nafarroako Foru Komunitatea eta Ipar Euskal Herria), eta, orobat, Gutunak aplikazio eta betetze maila oso desberdina izan du hiru esparruetan.

Hain zuzen ere, Euskal Herriko VI. Inkesta Soziolinguistikoa araberan,⁴ 1991-2016 urte aldian, 16 urte edo gehiagoko biztanleriari dagokionez, EAEn hazkunde nabarmena izan da euskal hiztunen kopuruan, ia 10 puntuko hazkundera (berez, gainera, hazkunde askoz handiagoa izan da 16 urtetik beherako gazte jendea ere aintzat hartzen badugu); Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, 3,5 puntuko hazkunde moderatua izan da garai berean; eta Ipar Euskal Herrian, aitzitik, 6 puntuko galera.⁵ Era berean, arestian aipatutako 1991-2016 urte aldian, euskararen erabilera izan duen bilakaerari dagokionez, Inkesta Soziolinguistikoak dio euskararen erabilera trinkoak⁶ bost puntuko hazkundera izan duela EAEn, Nafarroako Foru Komunitatean ez duela aldaketa nabarmenik izan eta bere horretan mantendu dela, eta Ipar Euskal Herrian atzera egin duela.

Logikoa dirudien bezala, euskarak azken hogeita bost urteetan bere hiru lurraldeetan bilakaera sozial desberdina izan duen eran, Gutunak ere —Espainian indarrean daramatzan hamazazpi urteetan— aplikazio

1 Gutuna (BOE, 2011-09-15, 222 zenbakia) 1992ko azaroan onartu zuen Europako Kontseiluak Estrasburgon, baina ez zen indarrean jarri sei urte geroago arte; izan ere, 1998an bete zen, hain zuzen, indarrean sar zedin Gutunak berak 19. artikuluan ezartzen zuen nahitaezko baldintza: Europako Kontseiluko kide ziren bost estatuk, gutxienez, formalki beren onespina ematea eta Gutunari atxikita geratzea. Espainiako estatuan 2001. urtean jarri zen indarrean, Espainiak Gutuna 1992an bertan sinatu zuen arren 2001ean berretsi baitzuen, indarrean jar zedin nahitaezko baldintza betetz, alegia.

2 Glosario soziolinguistikoetan ohikoak diren adierak kontuan hartuz, *gutxiengoaren hizkuntza* da hizkuntza-ukipenean bizi den lurralde batean pisu demografiko txikiagoa duen hizkuntza; eta *hizkuntza gutxitua*, berriz, hizkuntza hegemoniko edo nagusiaren ondoan erabilera esparru eta funtzio murrizketa bat bizi duen hizkuntza; ez dira, beraz, termino sinonimoak, nahiz eta bateragarriak izan litezkeen. Artikulu honetan, ordea, «eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak» adierazpidea erabiliko dugu eskuarki, Gutunaren euskarazko bertsioan ageri den adierazpidea erabiltzearen.

3 Artikulu hau idatzi nuen artean (2018ko otsaila), Gutunaren aplikazioari buruzko lau ebaluazio txosten onartu eta argitaratu ditu Europako Kontseiluak: 2005, 2008, 2013 eta 2016koak. Hain zuzen ere, txosten horietan jasota dauden informazioa, iruzkinak eta gomendioak hartu ditut aintzat Espainiako Estatuan Gutunak izan duen aplikazioa aztertzerakoan.

4 Inkesta Soziolinguistikoak da ikerkuntza tresnarik garrantzitsuen euskarak bere lurraldeetan izan duen bilakaerari buruz. Eusko Jaurlaritzak 1991z geroztik bost urtez behin egiten duen inkesta da, eta aplikatzen du Euskadiko Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Komunitateko eta Ipar Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren gainean. Inkestak datu ugari ematen ditu euskararen familia transmisioari buruz, euskararen ezagutzari buruz, euskarak hainbat esparru publiko eta pribatutan duen erabilera buruz, euskara sustatzearen aurrean herritarrek duten jarrerari buruz eta euskara sustatzeari begira Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak egiten duten lanaren gainean herritarrek duten balorazioari buruz. Hainbat ediziotan, Ipar Euskal Herriari buruzko inkesta Euskararen Erakunde Publikoarekin (Office Public de la Langue Basque) elkarlanean egin du Eusko Jaurlaritzak, eta VI. Inkesta, 2016koa, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak elkarlanean egin da, lehenbiziko aldiz, hiru herri erakunde horietako hizkuntza politikaren arloko arduradunek osatutako batzorde batek bultzatuta eta koordinatuta. Ikus: www.euskara.euskadi.eus

5 Nolanahi ere, aipatu beharrekoa da Ipar Euskal Herrian, 16-24 urteko populazio tartean, iraultzen ari dela azken hamarkada hauetan izan den atzeraldia, azken hogeita bost urteetan 7,6 puntutan hazi baitira pertsona elebidunak gazteen adin tarte horretan.

6 Inkesta Soziolinguistikoaren tipologietan, hiztunek euskararen erabilera «trinkoa» egiten dutela esaten da eguneroko jardunean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenean (Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean) edo euskara frantsesa beste edo gehiago erabiltzen dutenean (Ipar Euskal Herrian).

maila arrunt desberdina izan du euskararen lurraldeetan. Euskararen hiru lurraldeek oso lotura desberdina izan dute Gutunarekin, aurrerago ikusiko dugun legez. Eta desberdina da baita ere, arrunt desberdina, hiru lurraldeotan hizkuntzen gaiari dagokionez indarrean dagoen legezko araubidearen markoa. Kontuan hartu behar da hizkuntza legeria propioak⁷ Gutuna Espainiako Estatuan indarrean sartu baino askoz lehenagokoak direla, eta, hain zuzen ere, legeria propio horietan oinarrituta garatu diren hizkuntza politika desberdinek esplikatzeko dutela, hein handi batean, euskarak EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean izan duen bilakaera sozial desberdin hori.

1.1 Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna: euskarak Ipar Euskal Herrian ez duen arau bat

Gutuna ez da aplikatzen eta ez da kontuan hartzen Ipar Euskal Herrian, jakina denez, ez baitago indarrean Frantses Errepublikan. Frantziako Errepublikak 1999an sinatu zuen Gutuna, eta orduantxe aurreratu zuen zer konpromiso hartuko zituen berrespen dokumentua edo tresna formalizatzen zuenean. Baina, hala ere, Frantziako Estatuak ez du oraindik Gutuna berretsi eta, beraz, han ez dago indarrean; ondorioz, euskarak ez du izan —eta ez du oraindik— Gutunaren babesa.

Alabaina, euskararen kasuan, Gutunaren aplikazioa bereziki Ipar Euskal Herrian izango litzateke interesgarria, hau da, Frantziako Estatuan dagoen euskararen lurraldean, hori baita euskarak oraindik ofizialtasun mailaren bat eskuratu ez duen lurralde bakarra (EAEko lurralde osoan baitu hizkuntza ofizialaren izaera, eta Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, eremu *euskaldunean*). Izan ere, Frantzian, duen tradizio jakobino ezagunaren usadioei jarraituz, ofizialtasun estatusa aitortua duen hizkuntza bakarra frantsesa da (Konstituzioaren 2. artikulua arabera, «Errepublikaren hizkuntza frantsesa da»), eta, hierarkia ezin nabarmenago bat ezarri eta nagusitasun osoa eta bakarra frantsesari emanaz, Errepublikako gainerako hizkuntza historikoek ondareko hizkuntzen⁸ izaera dute, baina aitortza horrek ez dakarkie halaberrez erabiliak izatea sustatzeko arau garapenik. Praktikan, hizkuntza horiei oso beheko edo mendeko tokia eskaintzen diete Frantziako Estatuaren erakunde zentralek. Esaterako, Erregistro Zibiletan pertsonen izena jartzerakoan, gurasoen hautua frantsesa ez den hizkuntza bateko izena jartzea denean, nahitaez frantses grafiarekin idatzi behar dituzte, hau da, ezinezkoa dute bretoierazko, okzitanierazko edo euskarazko grafia erabili, beti frantses grafiarekin bat ez datorrena. «Ideologia» uniformizatzaile eta homogeneousatzaile horren erakuskari nabarmena da Jean-Michel Blanquer Hezkuntza ministroak esan zuena, genero kontuetan lengoaia inklusiboaren kontra zegoela azaltzeko: «Il y a une seule langue française, une seule grammaire, une seule République».⁹ Alderarik ezin bada onartu genero bereizkeriak leuntzeko ere, nola onartuko dira, bada, *beste* hizkuntza batzuetako grafia? Nekez laburtu daiteke zehatzago hizkuntza baten eskusibotasun izaera.

Gutuna Frantzian berresteko eta indarrean jartzeko egin diren saioetan eztabaida gogorak sortu dira eremu politikoan, sozialean eta hedabideetan. Hala gertatu zen Jacques Chirac presidente zela izan zen ahaleginean eta, zehazki, 1999an Kontseilu Konstituzionalak erabakia hartu zuenean¹⁰ Gutunaren eta Konstituzioaren bateragarritasun/bateraezintasunari buruz eta Gutunak hizkuntzei aitortzen zien trataeraren eta Errepublikaren printzipio konstituzionalaren artean egon zitekeen talkari buruz. Erabaki hartatik eratorritako ikuspegia, hain zuzen ere, nabari da geroago hartu izan diren beste posizio batzuetan; esaterako, Estatuko Kontseiluak¹¹

7 Gogoratu behar dugu Gutuna 2001ean jarri zela indarrean Espainiako Estatuan, baina hori baino hogeita bi urte lehenago, 1979an, Autonomia Estatutua jarri zela indarrean Euskadin, eta Autonomia Estatutuaren 6. artikulua hizkuntza ofizialaren izaera aitortzen diola euskarari, gaztelaniari bezala, EAEko lurralde osoan, herritar guztiei aitortzen diela euskaraz jakiteko eta erabiltzeko eskubidea eta, halaber, herri aginteei eskubide hori bermatzeko obligazioa ezartzen diela. Estatutua onartu eta handik hiru urtera —hau da, Gutuna bera baino hemeretzi urte lehenago— 10/1982 Legea onartu zen, euskararen normalizazioari eta erabilerari buruzkoa. Nafarroan, aldiz, 1982an onartu zen Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Lege Organikoa —autonomia estatutuen parekoa izango litzatekeena—. Legearen 9. artikulua euskararen koofizialtasuna xedatzen du Nafarroako lurraldearen alde zehatzugabe baterako. Eta 1986. urtean onartu zen 18/1986 Foru Legeak, Euskarari buruzkoak, ezarri zuen Nafarroako zein lurralde esparrutan den ofiziala euskara.

8 Frantziako Konstituzioaren erreformak 2008an 75-1 artikuluarik emandako idazketaren arabera, «Eskualdeetako hizkuntzak Frantziaren ondare dira». Aitortza hori bada aurrerapen bat. Arestian aipatutako hierarkiaren ikuspuntutik, oso esanguratsua da Konstituzioaren aipatu 75-1 eta 2. artikulua non dauden kokaturik: 75-1 artikulua XII tituluaren dago, lurralde entitatei buruzkoan; aitzitik, 2. artikulua, frantsesari «Errepublikaren hizkuntza» izaera eskusiboa ematen diona, I. tituluaren dago, subiranotasunari buruzkoan.

9 Ikus *Liberation* egunkaria, 2017ko azaroaren 17koa, edota ministroaren beraren twitterreko kontu ofiziala.

10 Ikus 99-412 DC ebazpena, 1999ko ekainaren 15ekoa, esteka honetan: www.conseil-constitutionnel.fr

11 Ikus 390268 diktamena, 2015eko uztailaren 30ekoa, Gutuna berrestea baimentzeko lege konstituzionalaren proiektuaren kontrako irizpena ematen duena, esteka honetan: www.legifrance.gouv.fr

eman dituen diktamen derrigorrezko baina ez lotesleetan, zeinak Gutuna berrestearen aurkakoak izan baitira. Frantses Akademia bera frantsesaren nagusitasuna eta eskualdeetako hizkuntzen mendekotasuna bermatzearen alde argi garbi azaldu ohi da, aitortza konstituzionala bakarrik frantsesari ematearen alde eginez.¹² Gutuna sinatzeko ekitaldian, 1999an, Frantziak aurreratu zuen konpromiso mailaren arabera, Gutunaren berrespenak Frantzian Espainian baino eragin nabarmen mugatuagoa izango lukeen arren, Gutuna berrestea eta indarrean jartze hutsa ere positiboa izango litzateke euskararentzat, gutxienez hizkuntza aniztasunaren legezko aitortza arauemaile bat ekarriko lukeelako lehenbiziko aldiz Frantziara; eta hori balitzateke aurrerapena, praktikan beste hizkuntzak toleratzera mugatzen den eta hizkuntza bakarraren logika nagusitzen den estatu baterako. Oraingoz, Gutuna berresteko azken ahalegina —hau ere huts egina— 2015ean izan zen, Errepublikako presidente François Hollande zela. Urte hartako ekainean, Frantziako Gobernuak aintzat hartu zuen Gutuna berresteko lege konstituzionalaren proiektu baten zirriborroa eta derrigorrezkoa den diktamena eskatu zion Estatuko Kontseiluari, baina berrespenaren aurkako eman zuen orduan ere, lehen esan bezala.¹³

Frantzian, beraz, Gutuna ez da aplikagarri, «ez dago». Eta egoera honetan, frantsesa ez diren «beste hizkuntzek» ez dute nazioarteko tratatu horren babes bere, Estatuaren aldetik ofizialtasunik ez edukitzeaz eta beren sustapenerako arau garapenik ez izateaz gainera. Horrenbestez, esan dezagun Gutunak izan dezakeen ibilbidea urratzeko oraindik zenbat falta duen ikusteko erakuskari ona dela Frantzia, hau da, kontinentearen hizkuntza aniztasuna zaintzeko eta sustatzeko tresna gisa eraginkorragoa izateko asko falta baitu oraindik.

1.2 Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren aplikazio maila desberdinak Nafarroako Foru Komunitatean

Espainiako estatura etorritz, Gutunak aplikazio maila desberdina du EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean; eta desberdina du, baita ere, Nafarroako bertako eskualde batzuetan eta besteetan. Hasteko, gogora dezagun zein diren Gutunak bere babespean hartzen dituen hizkuntzak: «eskualdeetako edo eremu urriko europar hizkuntza historikoak». Halakotzat jotzen ditu, hain zuzen ere, estatu batean gainerako populazioa baino txikiagoa den populazio zati batek hitz eginak diren eta «Estatuaren hizkuntza ofizialak» ez diren hizkuntzak. Euskara da horietako bat, beraz. Baina Gutunak bi babes maila orokor bereizten ditu, Gutunaren II. eta III. zatietan zehaztuta daudenak.

Gutunaren II. zatia lurraldean hitz egiten diren eskualdeko nahiz eremu urriko hizkuntza guztiei zaie aplikagarri, eta obligazio orokor gisa xedatzen du eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera sustatu behar dela, bai esparru publikoan bai pribatuan, eta hizkuntzok balioan jarri behar direla zaindu beharreko kultur aberastasunaren erakusle diren heinean. III. zatia, ordea, urrunago iristen da eta neurri zehatzak jasotzen ditu, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak era efektiboan sustatuak izan daitezen hainbat arlotan, besteak beste, hezkuntzan, justizian, zerbitzu publikoetan eta hedabideetan.

III. zati horretan jasotako neurri zehatzei dagokienez, esan daiteke Gutuna «kartako menu» baten antzekoa dela; izan ere, Estatuak, sinatzen dutenean eta, zehazkiago, indarrean jartzeko formalki beharrezkoa den berrespen dokumentua onartzen dutenean, «menuan» agertzen diren eta guztira 68 diren konpromiso guztien artean, hautatu behar dituzte «betetzea eta betearaztea agintzen» dituzten konpromisoak, nahi dituztenak baina inoiz ez 35 baino gutxiago. Hain zuzen ere, Gutunaren III. zatian jasota dauden 68 konpromisoei dagokienez, Espainiako Estatuak da konpromiso lotesle gehien hartutako estatuen arteko bat, den-denak bere egin baititu, hau da, Europako Tratatu honek jasotzen dituen 68 babes neurri konkretuak onartu baititu.

Dena dela, berrespen dokumentua onartzerakoan, Espainiako Gobernuak bi mota edo multzotan bereizi zituen eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzak: batetik, Autonomia Estatuetan ofizialtasun estatusa aitortua zuten hizkuntzak, eta, bestetik, ofizialak izan gabe ere, dagokien Autonomia Estatutuan era bateko edo besteko aitortza dutenak; hizkuntza multzoak hala bereizita, 68 konpromisoak «betetzeko eta betearazteko

12 Ikus, baita ere, Frantses Akademiak egindako adierazpena, 2008ko ekainaren 12koa, esteka honetan: www.academie-francaise.fr/actualites/la-langue-de-la-republique-est-le-francais

13 Ikus aipatutako diktamena 11. oinaldeko oharrean. NPLD erakundeak, 2015eko ekainaren amaieran, idatzi bat bidali zion frantses presidente François Hollanderi, eta Gutuna berrestearen alde berak eginak zituen adierazpenen bidean ez etsitzeko eskatu zion. Uztailaren 13an Hollanderen Kabineteko buruak erantzun zion idatziz NPLDri, besteak beste hau esanez: «Particulièrement sensible à votre démarche ainsi qu'à vos marques de soutien, Monsieur François HOLLANDE m'a confié le soin de vous en remercier vivement. Soyez assuré du plein engagement du Chef de l'État en faveur de la ratification de la Charte européenne des langues régionales ou minoritaires, qui garantit la protection du patrimoine linguistique et historique de l'Europe».

konpromisoa» lehen multzoko hizkuntzetara lotu zuen, hau da, ofizialtasuna aitortua duten hizkuntzetara.¹⁴ Horren ondorioz, jakina, euskarari dagokionez, Gutunaren III. zatia, hau da, Gutunaren xedapen zati osoa, aplikagarria da EAE osoan eta Nafarroako Foru Komunitatearen zati batean, «eremu euskaldunean»,¹⁵ nafar biztanleriaren % 10 baino gutxiago hartzen duen esparruan. Nafarroaren gainerako esparruan Gutunaren II. zatia da aplikagarria, nahiz eta gai hori —benetan garrantzitsua dena— eztabaidagai izan den, parte afektatuen artean, Gutunaren lehenbiziko kontrol edo jarraipen Txostena Espainian egin zenetik aurrera, hau da, 2005ean argitaratu zenetik aurrera.¹⁶ Labur bilduz, beraz, Nafarroan, esparru geografiko batean II. zatia aplikatzen da, eta bestean (legez «eremu euskalduna» deiturikoan) III. zatia ere aplikatzen da.

Nafarroako Foru Komunitatearen hizkuntza araubide propioak ezaugarri bereziak ditu: lurraldea hiru eremutan soziolinguistikotan banatzen du eta ofizialtasuna batean bakarrik aitortzen dio euskarari, «eremu euskaldunean», baina beste bietan ere¹⁷ errekonozitzen ditu hizkuntza eskubide batzuk. Hori dela eta, Gutuna lanabes garrantzitsua da, zalantzarik gabe, Gutuna betetzeak, hain zuzen, irakurketa positiboan egitera behartzen baitu, euskararen erabilera sustatzeko zonifikazio soziolinguistikoaren ganean. Zehazki, Gutunaren 7. artikulua dut aintzat hori esateko. Hain zuzen ere, artikulua horren 1. eta 2. paragrafoetan ezarritako helburuek eta printzipioek euskararentzako ekintza positiboko politikak garatzera bideratzen gaituzte nahitaez, kontuan hartuz, nola ez, Nafarroako aniztasun soziolinguistikoa eta, beraz, gradualtasun eta progresibotasun irizpideekin jokatzuz, baina, baita ere, euskararen babesa lurralde osora hedatzeari begira beti jarrera inhibitzaileekin edo kontrakoekin jokatzeari eragotziz.

Gutunak Nafarroako Foru Komunitatean izan duen garrantziaren adibideak dira Euskararen Foru Legea (18/1986 Foru Legea) partzialki aldatu duten bi legeak: 4/2015 Foru Legea, otsailaren 24koa, eta 9/2017 Foru Legea, ekainaren 27koa. Bi legeok beren justifikazioaren parte bat aurkitzen dute Gutunaren edukian bertan eta Adituen Batzordearen eta Europako Kontseiluaren ebaluazio txostenetan.¹⁸

Artikulu honen helburua ez denez Gutunak Nafarroako Foru Komunitatean duen aplikazioaren analisi xehetu bat egitea, kontu nabarmen batzuk aipatzera mugatuko naiz atal honetan. 4. Ebaluazio Txostena¹⁹ —artikulu

14 Berrespen adierazpenean espresuki jasotzen den bezala, hizkuntza horiek dira «Euskadiko, Kataluniako, Balear Uharteetako, Galiziako, Valentziako eta Nafarroako autonomia erkidegoetako Autonomia Estatutuetan hizkuntza ofizial gisa aitortuta dauden hizkuntzak», nahiz eta Nafarroaren kasuan aplikazio eremu murriztua izan.

15 13/1982 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Erautza Berrezarri eta Hobetzekoak, 9. artikuluan ezartzen duenez «gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala», eta «euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan. Foru lege batek eskualde horiek zehaztuko ditu...» Agindu hori betez, 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, Euskarari buruzkoak, ezarri zuen Nafarroaren zonifikazio soziolinguistikoa (NAO, 1986-12-17, 154 zenbakia, geroztik aldatetak izan dituen legea). Hala, hiru lurralde eremu berezitu zituen: eskualde euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez euskalduna; eta Legeak ezarritako araubidearen arabera, euskara zona euskaldunean bakarrik da ofiziala.

16 Esanguratsua eta nabarmena da Adituen Batzordeak, Gutunak Espainian duen aplikazioaren ebaluaziorako lehenbiziko txostenean (2005eko txostena, hasierako kontrol zikloari zegokiona), eskari hau jaso zuela: «Adituen Batzordeak dei egiten diete Espainiako agintaritzei (...) aztertu dezaten ez ote den beharrezkoa eremu mistoari babes egokia ematea, III. zatian ezarritakoaren arabera (azpimarra nirea da), batez ere kontuan hartuta dagoeneko neurri ugari hartu direla (...) Adierazi behar da gai hori ez dagoela halaber beharrezkoa hizkuntzaren koofizialtasuna aitortzearekin, zeina sistema juridiko nazionalaren ikuspegitik baita pertinentea» (72. paragrafoa). Espainiako agintaritzek ez zuten eskaera onartu, eta 2005eko Ebaluazio Txostenean hauxe argudiatu zuten: «Adituen Batzordeak iradokitzen duen bezala, eremu euskaldunean euskarak duen babes maila eremu mistora zabaltzeak Nafarroako Foru Komunitatean euskarak aitortua duen babes araubidea aldatzea lekarke» (ikus II. eranskineko K paragrafoa, Espainiako Gobernuaren iruzkinetan).

17 Ikus 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, Euskararenak, eremu mistorako aitortzen dituen eskubideak: «Herritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Nafarroako Administrazio Publikoari zuzentzeko.» (17. art.). Hala ere, eremu euskaldunean gertatzen denaren aurka (10. art.), ez da aitortzen herritarrek berek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea; eta eremu ez euskaldunean «Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei. Administrazio horiek interesdunei gaztelaniara itzultzeko eska diezaiekete» (18. art.).

18 4/2015 Foru Legeak, otsailaren 24koak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duenak (NAO, 2015-03-10, 47 zk.), helburua zuen heziketa «euskaraz» jasotzeko eskubidea bermatzea Nafarroako lurralde osoan. Hori dela eta, zioen azalpenean hau dio: «Espainiak Erregio edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Kartaren esparruan sinatutako konpromisoekin bat, legedia egokitu eta berrikusi beharra dago, Administrazioak erantzun diezaioten eremu ez euskaldunean nahiz eremu mistoan dagoen gizarte eskariari». Nafar legegileak Gutunaren 8. artikulua du gogoan hori adierazterakoan. Eta 9/2017 Foru Legeak, ekainaren 27koak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatzen dituenak (NAO, 2017-07-06, 130 zk.), zioen azalpenean hau dio: «gaztelaniazko testuan, «vascuence» adierazpidearen ordez «eusker» erabiliko da, azken horren erabilera zabalduago dagoelako era guztietako erakundeetan eta Nafarroako gizartean. Hala berresten du Europako Kontseiluak, baita Erregio edo gutxiengo hizkuntzen Europako Kartaren jarraipena egiten duen Adituen Batzordeak ere, «eusker» terminoa erabiltzen baitute egiten dituzten txostenetan».

19 Adituen Batzordeak 2015eko martxoaren 20an onartu zuen 4. Ebaluazio Txostena. Adituen Batzordearen txostenaren edukari buruzko oharra egin zituan Espainiako Gobernuari emandako entzunaldiaren ondoren, 2016ko urtarrilaren 20an hartu zuen eta plazaratu zuen Ministroen Batzordeak bere erabakia, non, besteak beste, «Espainiako agintariei gomendatzen zaien aintzat har ditzaten Adituen Batzordearen ohar eta gomendio guztiak eta, lehentasunez sei gomendio zehatz». Ministroen Batzordeak, horrenbestez, bere egin zuen Adituen Batzordearen Jarraipen Txostena. 4. Jarraipen

hau idazteko unean onartua zegoen azkena— gaingiroki irakurriz ere antzeman daiteke Gutunak Nafarroan duen betetze maila. Hezkuntzaren arloko konpromisoei dagokienez, Adituen Batzordeak betetzat jotzen ditu. Esanguratsua da arlo honetan neurri positibo bezala 4/2015 Foru Legea nabarmentzen duela Batzordeak, hain zuzen ere 18/1986 Foru Legea, Euskarari buruzkoa, aldatzen duen 4/2015 Legearen helburua baita Nafarroako eskola publiko guztietara hedatzea euskaraz ikasteko aukera, eremu soziolinguistikoa edozein dela ere. Adituen Batzordeak dioen bezala, «praktikan, D eredia eremu ez euskalduneko eskola publikoetan sartzeko aukera ahalbidetzen du».²⁰ Adituen Batzordeak goraiatu egiten ditu agintariak aurrerapen horregatik (ikus 250 paragrafoa). Justizia arloa da Gutuna gutxien garatu dena (eta hau ez da Nafarroan bakarrik gertatzen), eta zerbitzu administratiboen eta zerbitzu publikoen arloan, berriz, defizitak apuntatzen dira Estatuaren Administrazio periferikoaren zerbitzuen betetze mailan eta, baita ere, nahiz neurri txikiagoan, foru eta toki zerbitzuen betetze mailan ere.

Bide beretik, Adituen Batzordeak azpimarratzen du Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean elkarlana hobetu beharra «batik bat hedabideen arloan, ETB euskal telebista publikoaren harrerari dagokionez» (ondorioen ataleko K paragrafoa). Zehatzago esanda, hedabideen esparruan, osorik edo zati batean bete diren konpromisoez gain, bete gabe dirauten bi zerbitzu aipatzen ditu Adituen Batzordeak eta «agintariei zinez eskatzen die berma dezatela gutxienez irriati emisora bat eta telebista kanal bat egotea euskaraz, behar baldin bada EAerekin elkarlanean» (ikus 318 paragrafoa). Paradoxikoa da baina, IV. Txostena argitara eman eta handik hilabete gutxira, ETB-Euskal Telebistaren emisioa eten egin zuten Nafarroako Foru Komunitatean, Espainiako Gobernuaren Industria Ministerioaren ekimen baten ondorioz. Eteko erabaki hura, Ministerioak irizpide teknikoaren arabera esplikatu zuen —frekuentzien banaketa eta antolamenduarekin lotutako irizpideekin, alegia— baina gaitzespen ugari jaso zituen hainbat erakunde publikorengandik eta era guztietako gizarte erakundeetatik.²¹ Gaur egun, 2018an, dagoeneko bete egiten da euskarazko irriati emisora bat eta telebista kanal bat edukitzeko konpromisoa.

Azkenik, merezi du hona ekartzea Adituen Batzordeak jaso zituen beste bi ohar ere. Batean honako hau zioen Batzordeak: «Euskarabideari esleitutako aurrekontu osoa 3.191.002 eurotik 2.318.934 eurora jaitsi zen 2010ean (...) eta horrek eragin negatiboa izan lezake euskarak Nafarroako Foru Komunitatean izan behar duen babesean eta sustapenean» (105 paragrafoa).²² Oharrak interesa du, zeren Adituen Batzordeak era inplizituan azpimarratzen du euskararen sustapenerako balia bideak edukitzearen garrantzia. Har bedi kontuan, izan ere, eztabaida publikoan ahots batzuek planteatu dutela gastu publikoa xahutzea dela euskara sustatzeko balia bideak jartzea.²³ Aitzitik, oso bestelakoa da Adituen Batzordeak adierazitako kezka zentzua. Beste aldetik, hezkuntza arloko konpromisoei dagokienez, Adituen Batzordeak hau adierazi zuten: «Agintariak ingelesa heziketa maila guztietan sartzeari aztertzen ari dira, baina horrek ez du zalantza jarri behar euskara irakas-hizkuntza gisa eskaintzea, Gutuna aintzat hartuta (ikus ondorioen ataleko K paragrafoa).

Laburbilduz, Europako Kontseiluaren IV. Ebaluazio Txostenaren arabera, esan daiteke Nafarroako Foru Komunitatean, zehazkiago eremu euskaldunean, Gutunaren III. zatiko konpromisoei dagokienez betetze

Txostena behin betiko 2016ko urtarrilaren 20an onartu zen eta bera da artikulua hau idazteko unean onartu den azkena.

20 D eredian, irakaskuntza osorik euskaraz egiten da, Gaztelania eta Espainiar Literatura ikasgaia izan ezik, zeina gaztelaniaz ematen baita.

21 Nafarroako Gobernuaren —lehendakari Uxue Barkos zela— Industria Ministerioaren erabakiaren kontra azaldu zen erabat; baita Eusko Jaurlaritzaren ere —lehendakari Iñigo Urkullu zela—. Gizarte eragile anitzek izan zituzten ekimenen artean, NPLDk bere Batzar Nagusian aho batez abiarazi zuena azpimarratu nahi dut. Izan ere, NPLDko lehendakariak idazki bat bidali zien Espainiako Gobernuari agintariei, non, behar zen errespetuaz, gogorarazten zion Gutunaren Aditu Batzordeak gomendatua zuela ETBren euskarazko emisioak Nafarroan ere ikusi ahal izatea; hortaz, ETBren seinalea Nafarroan etenik uzteak Gutunaren espiritua eta letra urratzen zituela kontsideratzen zenez, etenaldi hura bertan behera uzteko eskaria egiten zion NPLDk Espainiako Gobernuari. Ekimen honen berri, halaber, Gutunaren Aditu Batzordeko kideei eta Nafarroa eta Euskadiko gobernuak jakinarazi zion.

22 Gogoan izan ohar hau jasotzen duen IV. Txosten hori 2010-2013 aldiari buruzkoa dela. 2015az geroztik, Ana Ollo kontseilari eta Mikel Arregi zuzendari direla, Euskarabidearen aurrekontua hazi egin da era nabarmenean.

23 Ikus ditugun EAeko bi adibide. Lehena: 2014ko ekainean, alderdi konstituzionalistek erabateko desadostasuna adierazi zuten Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Agenda Estrategikorako onartu zuen dotazio ekonomikoaren aurrean (335 milioi euro ziren hiru urterako, 2014-2016), gehiegizkoa zela iritzia, bereziki krisialdi ekonomiko beteko garaia zelako. Euskadiko PPK, urte bereko uztailan, legez besteko proposamen bat aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean, non Eusko Jaurlaritzari eskatzen zion Euskararen Agenda bertan behera uzteko arrazoi horregatik. Bigarrena: 2014ko maiatzean, UPyD alderdiak Eusko Legebiltzarrean zuen ordezkariak adierazi zuen «zenbateko izugarriak eta gehiegizkoak, herritar arruntek onartezin joko lituzketenak» kontsideratzen zituela euskal administrazioek euskara sustatzeko 2012an exekutatu zituzten aurrekontuak. Ikus Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordearen Bilkuren Egunkaria (2014-05-05) eta Osoko Bilkuren Egunkaria (2014-11-20): www.legebiltzarra.eus. Edozein modutara ere, hizkuntzen sustapenaren balorazio ekonomiko eztabaidagai da hainbat herrialdetan. Ikus Trifunovska, Snezana: «Baltikoko estatuen kasua», hemen: ZENBAIT EGILE: *Eremu urriko hizkuntzen babesa Europan: hamarkada berri baterantz*, 2011, Eusko Jaurlaritzaren.

maila handia erakusten dutela foru eta toki erakundeek, nahiz eta badiren oraindik bete ez diren konpromiso gutxi batzuk; beste batzuk, hamabost inguru, zati batean beterik daude.

2 Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren aplikazioa eta betetze maila EAEn

Gutunak EAEn duen aplikazio prozesuak argi-ilunak ditu, gizartearen egiturei eragiten dieten jarrera eta ohitura aldaketak aldatzeko edozein prozesu sozialetan gertatu ohi denez. Hasieratik beretik esan nahi dut argi eta garbi: argi-ilunen prozesu honetan nabarmen nagusitu dira argiak. Euskarak EAEn gaur egun bizi duen egoera nabarmen hobea da 2001ean baino, hau da, Gutuna Espainian indarrean jarri zenean baino (ikus VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 4. oin-oharrean). Gutunaren Espainiari buruzko IV. Jarraipen Txostenaren emaitzak ere (2016ko urtarrilean argitaratutakoa da orain arte argitaratutako azkena) nabarmen positiboagoak dira 1. Ebaluazio Txostenekoak baino (2005ean argitaratua zen hura). Argiak nagusi dira, bai kuantitatiboki (betetako konpromisoen kopuruan), bai kualitatiboki. Dena dela, argien ondoan badira ilunak ere. Nire ustez, horietako batzuk izaera estrukturalako arazoak dira eta, funtsean, Estatuaren ekintza faltaren ondorio dira. Gauza jakina da desberdintasun egoerak gainditzeko garaian, hizkuntza politikei gagozkienean, ekintzarik eza, berez, ekintza mota bat dela, *statu quo*-a indartzen duen ekintza mota bat, desberdintasuna betiketzen laguntzen duena.

EAEn dagokionez «argi-ilunen prozesua» deitu dudana hobeto ulertzeko, komeni da gogoratzea Gutuna ezinbestez Estatuaren testuinguruan ulertu beharreko tresna bat dela, estatua baita onartu duena, indarrean jarri duena eta, bera betetzeko eta betearazteko obligazioa duena.

2.1 Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren ezaugarri nagusiak, Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta Espainiako Estatuan duen aplikazioari eragiten diotenak

Zalantzarik gabe, Gutunak eragin positiboa du euskararen garapen sozialean, berezkoak dituen ezaugarri batzuen ondorioz. Ezaugarri horietan nabarmenenak aipatuko ditut.

Gutuna izaera juridikoko tresna bat da. Egia da Gutuna ez betetzeak Estatu bati ez dakarzukiola zuzeneko ondorio juridikoak edo zigorrak. Gutunak ebaluazio mekanismo bat du. Ebaluazio prozesu horretarako, Adituen Batzorde bat eratzen da, Gutunaren betetze maila gainbegiratzeko ahalmena duena; haren txostenetan oinarrituta, Ministroen Kontseiluak gomendioak egiten dizkie estatuei, baina ez da aurreikusten izaera judizialeko neurririk hartzea betetzen ez duenarentzat. Horrek, ordea, ez du inola ere esan nahi Gutuna gomendio politiko hutsen dokumentu bat denik. Izan ere, Gutuna da nazioarte mailan dugun tresna legislatibo nagusia, helburu espezifiko honekin onartua: eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak babestea eta haien erabilera sustatzea.²⁴ Beraz, azpimarratu beharra dago Gutunak izaera juridiko nabarmena duela. Gutunak behartu egiten ditu Estatu sinatzaileak konpromiso jakin batzuk betetzera, hain zuzen ere Gutunak definitutako konpromiso posibleen artean Estatu bakoitzak bere egindako konpromisoak betetzera; eta behartzen ditu, edozein kasutan ere, hizkuntza politika bat garatzera, bertan ezarritako helburu eta printzipioak modu eraginkorrean errespetatuz. Gutuna nazioarteko tratatu bat da eta Estatuak berresten duenean Estatuaren beraren antolamendu juridikoaren osagai bihurtzen da. Horren ondorioz, Estatuaren legeria propioak ezinbestez bere egin behar ditu Gutunaren II. zatian (7. art.) jasotzen diren helburuak eta printzipioak, osorik eta izaera minimoaz gainera; ahaztu gabe, bestalde, III. zatian (8-14 art.) jasotako 68 konpromiso edo neurrietatik gutxienez 35 bete behar dituela. Hortaz, atxikitzen diren Estatuak derrigorrez bete beharreko legezko arau bihurtzen dute Gutuna. Gutunera borondatez atxiki daitezke Estatuak, baina, atxikiz gero, Estatuak ezin dio inola ere hura betetzeari uko egin. Gauzak horrela, euskarari dagokionez, nazioartekoa eta loteslea den arau babesle bat izatea eta arau horrek euskararen erabilera sustatzeko hizkuntza politikak garatzeko aterpea ematea oso positiboa izan da, eta hala izaten segitzen du, zalantzarik gabe.

²⁴ Terminologiaren gaia garrantzitsua da, baina ez da artikulu honen berezko gaia. Balio beza ohar honek jasota uzteko terminologiak zuzeneko lotura izaten duela hizkuntzei aitortzen zaien ala ukatzen zaien balioarekin. Gutunaren izenak berak erakusten du Estatuaren beraren hizkuntza ofizial ez diren hizkuntza guztiak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzat hartzen dituela; baina, errealitatean, bereizi beharko lirateke, adibidez, hizkuntza gutxiak eta eremu urriko hizkuntzak, eremu urrikoak ez diren hizkuntza gutxiak, hizkuntza ez hegemonikoak, hizkuntza subestatal ofizialak, hizkuntza subestatal ez ofizialak, eremu urriko hizkuntzak, eta abar.

Horrenbestez, Gutuna nazioarte mailako tresnarik onena eta aurreratuena da —izaera normatiboa duen bakarra—, eremu urriko edo gutxiengoen hizkuntzak eta hizkuntza gutxituak sustatzeko eta erabiltzeko hizkuntza politikak garatzeari begira. Besteak beste, gauza nabarmen bat lortu du Gutunak: Europako hizkuntza aniztasuna kontinentearen agenda politikoan kokatzea, aniztasun kontzeptu hori Estatu hizkuntza ofizial eta hegemonikoez harago zabalduz eta bestelako hizkuntza «historikoak», «eskualdeetakoak», «eremu urrikoak» edo «propioak» besarkatuz.²⁵ Hori onuragarria da euskararentzat —eta «beste hizkuntza» guztientzat—, zeren laguntzen du Europako espazioa euskara bezalako hizkuntzentzat ere zabaltzeko, euskarak eta gainerako hizkuntzok, zalantzarik gabe, europar hizkuntza gisa proiektatu behar baitira testuinguru europarrean. Espainiako Estatuako beste hizkuntza batzuek bezala, euskarak badu aitortza bat, nahiz aitortza mugatua izan, Europar Batasunaren erakunde jakin batzuetan, Espainiako Estatuaren eskariz EBko Kontseiluak 2005eko ekainean²⁶ onartutako konklusioei esker; eta, nolana ere den, «eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzei» dagokienean Gutunak proiektatu duen dimentsio europarrak lagundu egiten du hizkuntza horien —eta tartean euskararen— aitortza eta balorizazio soziala gero eta handiagoa izan dadin Europako mapa politiko eta sozialean.

«Diskriminazio positiboaren (hizkuntza diskriminaziorik eza) edo ekintza konpentsagarri eta berdintzailearen» printzipioa. Bada faktore bat Gutunaren bizkarrezurraren osagai dena eta azpimarratu behar dena, «eskualdeetako edo eremu urriko» hizkuntzak babesteko eta haien erabilera sustatzeko politikak legitimatzeko duen garrantziagatik. Euskara sustatzeko ekintzei begira, faktore positiboa izan da hori, nabarmen positiboa, euskara sustatzeko politiken oinarrien berrespen internazionala ekarri baitu argi eta garbi. Faktore hori diskriminazio positiboaren edo ekintza konpentsagarriaren aitortza legala da, 7.2 artikuluan definitua dagoena.

Gauza jakina da —maiz ikusi dugulako— edozein esparrutan desberdintasunak murrizteko bultzatzen diren aldaketa sozialen aurrean erresistentziako jarrerak agertu ohi direla. Askotan, gainera, erresistentziako jarrera horiek, posizio hegemonikoetan daudenek ez ezik, desberdintasuna jasaten dutenek beraiek ere erakusten dituzte, desberdintasunaren baloreak —oharkabean edo etsita— bere egiten dituztelako. Eta aldaketa linguistikoen prozesuak ez dira salbuespena. Halako erresistentzia jarrerak modu desberdinetan agertu daitezke (eta gizartearen hizkuntza ohituretan ere bai): erresistentzia mota bat izan daiteke «desberdintasunaren arazoa» ezkutatzea, hau da, arazoa antzeman ez dadin saiatzea edo, antzematen bada, «arazo errealtzat» har ez dadin saiatzea; beste erresistentzia mota bat —batzuetan beste horretatik eratorria— biktima bera errudun egitea izaten da, hau da, desberdintasuna jasaten ari den biktima bera arazoaren erruduna balitz bezala azaltzen saiatzea. Esate baterako, EAEn askotan entzun izan dugu galdera hau, galdera baino baieztapen bat izaten dena: “Zergatik tematzen dira ‘hizkuntza hori’ (euskara) erabiltzera, gizartearen parte batek bakarrik dakienean eta Estatuaren hizkuntza komunean denok elkar ulertzen dugunean? Guztiok ulertzen ez dugun hizkuntza bat erabiltzea, batez ere ulertzen ez duen norbaiten aurrean, errespetu falta bat da eta liskarra sortzeko bakarrik egiten da». Antzeko esaldiak behin eta berriz esan izan dira euskararen testuinguru sozialean, eta, azken batean, biktima errudun bihurtu nahia dakarte.²⁷ Aurreiritzi linguistikoen mota berekoa da eta, halaber, ez hegemonikoa errudun bihurtu nahiaren ondorioa da euskarari buruz aldiari behin entzuten dugun galdera hau ere: «Zuk zer mediku nahiago duzu: profesional ona den bat edo euskaraz dakien bat?». Gezurrezko alternatiba da, ordea: mediku ona izatea eta euskaraz jakitea bateraezinez balira bezala, kontraesanean baleude bezala! Edo euskara —beste edozein hizkuntza bezalaxe— komunikazio tresna bat ez balitz bezala eta medikuaren eta gaixoaren artean enpatia sortzen lagunduko ez balu bezala! Bada, Gutunaren 7.2 artikulua horrelako erresistentzia jarreraren antipodetan dago eta, aitzitik, legitimatu

²⁵ Guztiarekin ere, komeni da gogoan izatea Gutunak lurralde irismen mugatua duela European, hau da, ez dela Europa osoan aplikagarria, zeren Europako Kontseiluak onartua den arren, antolakunde hori osatzen duten estatu guztien erdiek baino gehixeagok bakarrik jarri baitute indarrean, geroago zehaztuko dugun bezala.

²⁶ Europar Batasuneko Kontseiluak, 2005eko ekainaren 13an, bere konklusioak medio, europar erakundearen aurrean erabilia izateko aitortza mugatu bat onartu zion euskarari, nahiz eta aitortza hori urrun dagoen Batasunaren hizkuntza ofizialei aitortutako ofizialtasun estatusetik. Aitortza «mugatu» horrek aukera ematen du, besteak beste, euskaraz idatzitako komunikazioak bidaltzeko EBko erakunde jakin batzuetara (Europako Batzordea, Europako Arartekoa eta Justizia Auzitegia), Europako lege-arau jakin batzuk euskaraz argitaratzeko edo Autonomia Erkidegoetara eta Eskualdeetako Lantaldera irekita egiten diren Ministroen Kontseilu saioetan euskaraz aritzeko.

²⁷ Eusko Jaurlaritzak 2015ean kanpaina bat egin zuen, «eta txipa aldatuko bagenu?» izena zuena eta bereziki zuzendua zegoena, hain zuzen ere, euskal hitzunen artean egon zitekeen aurreiritzi horri aurre egitera (ikus kanpainaren edukari buruzko erreferentziak: www.irekia.euskadi.eus; www.erabili.eus/zer_berri/berriak/1423742198; www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus; www.telptailerrak.eus/tag/aurreiritziak). Ikus, baita ere: BAZTARRIKA, Patxi (2009): *Babeli gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra*, Irun: Alberdania, 2009, 305-306 or.

egiten ditu egoera desberdinean daudenak era desberdinean tratatzen dituzten hizkuntza politikak, berdintasun handiagorantz hurbiltzearen, hain zuzen ere. Diskriminazio positiboaren aldeko eta biktima erruduntzearen aurkako aldarri ozena da Gutunaren 7.2 artikulua dioena: «Aldeek konpromisoa hartzen duten ezabatzeko, oraindik egin ez badute, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketanak. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez da hartuko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen aurkako diskriminazio-ekintzatzat, neurrian helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainontzeko herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada».

Arestian aipatu dudan diskriminazio positibo edo ekintza konpentsatorioaren printzipioa oso nabarmen ageri da, baita ere, 7.1 artikuluan, non Estatuaren «politika, legedia eta jardunaren» helburu eta printzipioen artean aipatzen dituen, besteak beste, «eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak sustatzeko ekintza seguru baten beharra» eta «eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak bizitza publikoan eta pribatuan ahoz eta idatziz erabiltzea erraztu eta/edo sustatzea».

Zalantzarik gabe, euskararen garapen sozialerako oso onuragarria da nazioarteko arau lotesle batek diskriminazio positiboaren printzipioa argi eta garbi jasotzea.

Hizkuntzen arteko bizikidetzeta. Orobat, Gutunak Estatuaren hizkuntza ofizialen eta «gainerako» hizkuntzen arteko elkarbizitza sustatzen du, hitzaurrean esaten baitu «eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzea ez litzatekeela hizkuntza ofizialen eta horiek ikasteko beharrezkoaren kalterako egin behariko». Elkarbizitza ulertzeko modu hori zeharo bateragarria da euskararen erabilera normalizatzearen euskal erakundeek bultzatu dituzten hizkuntza politiketan bilatu den bizikidetzaren kontzeptuarekin, nahiz eta hainbat, ulertzen zaila den arren, hizkuntza politika horiek deskalifikatzen saiatu diren, «gaztelaniaren jazarpen» gezurrezkoekin identifikatu nahiz.²⁸ Euskararen erabilera sustatzeak ez du esan nahi, inola ere, gaztelaniaren kontra egotea edo gaztelania zokoratu nahi izatea: hori dioten aurreiritzi hegemonista horiek oinarri ustela dute, Gutunaren 7. artikulua ongi asko argitzen duenez.

Kanpo ebaluaziorako tresna Azkenik, Gutunak badu beste faktore bat euskararen garapen sozialerako onuragarria izan dena eta dena: betetze mailaren jarraipeneko ebaluazio prozesua, 15. eta 16. artikuluetan jasotzen dena. Ebaluazio txostenak eta bertan jasotzen diren gomendioak dira Gutunaren baliabide eraginkorra. Espainiaren eta EAEn kasuan, hiru urtean behin egiten da Gutunak ezarritako jarraipen edo kontrola, nahiz eta atzerapen nabariarekin burutzen diren. Lehena 2005. urtean egin zen eta, orain arte, 2016koa izan da azkena, laugarrena, hain zuzen. Jarraipen horren emaitza Adituen Batzordeak egindako txostena izaten da.²⁹ Esan bezala, gure kasuan lau txosten dira artikulua hau idatzi artean egin direnak (azkena, 2016ko urtarrilean argitaratua). Adituen Batzordeak idazten ditu, Espainiako Gobernuak bidalitako txostenetik abiatuta eta Batzordeak berak Espainiara egindako monitorizazio bisitetan jaso eta kontrastatutako informazioa kontuan hartuta. Bisita horietan, Adituen Batzordeko kideak Estatuaren ordezkariarekin biltzeaz gainera, biltzen dira, orobat, «beste hizkuntzak» garatzeko politiken eskumena dagokien Estatuaren gobernuaren ordezkariarekin —besteak beste Eusko Jaurlaritzako ordezkariarekin, EAEn hizkuntza politikaren eskumena duen erakunde delako— eta gaian inplikaturiko beste erakunde publiko batzuekin —esaterako, euskal agintari judizialekin—, bai eta euskararen sustapenean ari diren gobernu kanpoko erakunde batzuekin ere.³⁰ Adituen Batzordeak egin dituen lau txostenok Europako Kontseiluaren Ministro Batzordeak bere egin

28 Ikus bi adibide argi, euskararen kontestuan nahiz beste hizkuntza batzuean, Espainian bultzatu diren hizkuntza normalizaziorako prozesuen kontra egin diren kritika horrenak. Lehena: «Hizkuntza komunaren aldeko Agiria», Madrilgo Ateneoan 2008-06-03an aurkeztu zena. Halaxe dio lehenengo paragrafoan: «gero eta arrazoi gehiago daukagu gaztelaniak gure herrialdean duen egoera instituzionalagatik kezkatzeko (...) kezka politikoa da: herrialde honetako komunikazio demokratikoko hizkuntza nagusi gisa behar duen zereginari buruzkoa». Bigarrena: ESPADA, Arcadi: «El bilingüismo a veces es un disfraz desde el que se pretende relegar al castellano», hemen aipatua: BAZTARRIKA, Patxi: *Babeli gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra*, op.cit. 101 or.

29 Adituen Batzordeko kideak Europako Kontseiluaren Ministro Batzordeak izendatzen ditu, Gutuna indarrean duten Estatuaren proposatutako izenen artean hautatuta. Adituen Batzordeetako kideek ebaluazio txostenak osatzerakoan erakutsi duten ezagutza eta zorrotasuna funtsezkoak izan dira Gutunaren beraren ospe onerako.

30 IV. Txostenaren monitorizazioan EAEn egin zuen bisitan, Adituen Batzordeak lansatutako bat egin zuen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako (eta Elebideko eta HABEko) arduradun nagusiekin, eta berariazko bilerak egin zituen, baita ere, Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko ordezkariarekin, Euskadiko Auzitegi Nagusiko ordezkari nagusiekin, Bizkaiko Abokatuen Elkargoko kideekin, EITBko ordezkariarekin, eta

ditu, eta Batzorde horrek Espainiako Estatuari zuzendutako gomendio zehatzekin osatu dira.³¹ Horrela, ebaluazio txosten horiek euskararen sustapen sozialerako politiken «kanpo kontrol» bat ere izan dira, eta kanpoko ikuspegia izate horrek badu onura berezia edo gehigarria euskararentzat.

Hainbat kontutan gertatu ohi den bezala, Gutunaren aplikazioaren gai honetan ere, beti ez dira bat etorri agindua eta egina, ez osorik behintzat. Hala ere, aldizka-aldizka jarraipen eta ebaluazio prozesua edukitzeak baliabide arau emaila bizia izatea dakarkio Gutunari, eta nahitaez bete beharreko arau erreferentzia izatea ere bai, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak dituzten estatuetan nahiz estatupeko lurraldeetan edonolako gorabehera politikoak gertatuta ere. Gutuna indarrean duten Estatu guztietan aldizka-aldizka nahitaez egiten den ebaluazioak haiek beren burua ispiluan begiratzera eta «ikertuak izaten» onartzera behartzen ditu Estatuok; horrek, berez, dinamika positiboak eta Gutuna balioan jartzen dutenak sorrarazten ditu, inork ez baitu gustuko izaten nazioarteko tratatu batean betetzen ez duenaren edo erdizka betetzen duenaren paperetan agertzea. Gainera, hiru urtez behin egiten diren monitorizazio prozesuek Adituen Batzordearen eginkizuna jarri dute balioan; izan ere, euskararen kasuan behinik behin —kasu hau da ondoen ezagutzen dudana— azterlan exhaustiboa eta zorrotza egin ohi baitute; esan genezake, beraz, Adituen Batzordeak behar besteko autoritate duela aitortua ebaluazioak egiteko eta Ministroen Batzordeari gomendioak proposatzeko eta, hartara, Gutunaren interpretazio aurreratua eta etengabe eguneratua edukitzeko.

Ebaluazioak ahalbidetzen du Europako Kontseiluaren eta hizkuntza politikako eskumena duten (Eusko Jaurlaritza, kasu) gobernu azpiestatalen arteko harremana, nahiz ez behar bestean. Euskararen kasuan, esandakoaz gainera, ebaluazio txostenak prestatzeko aurrez egindako kontrol prozesuek ahalbidetu dute zuzeneko harremana izatea Europako Kontseiluaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Paradoxikoa den arren, Jaurlaritzaren eta gainerako euskal erakundeen eraginari esker —eta Estatuaren parte hartze eta ekarpen eskasaren eraginaren kontra—³² Espainiako Estatuak betetze maila handia erakusten du euskarari dagozkion Gutuneko konpromisoen aurrean. Era berean, ebaluazio prozesuek ahalbidetu dute Adituen Batzordeak harremana izatea Gutunaren obligazioak bete beharra duten beste erakunde publiko batzuekin eta, halaber, euskararen erabilera gizarte, kultura eta ekonomia esparruetan sustatzen ari diren hainbat gizarte eragilerekin. Eta, azkenik, Gutunaren betetzeari dagokionez defizitak identifikatzen eta hobekuntza puntuak markatzen laguntzeaz gainera, ebaluazio txostenek balio izan dute, baita ere, hedabideek, Europako Kontseiluaren kontsiderazio eta gomendioen argitan, euskararen bilakaera sozialari buruzko zabalkunde handiagoa egin dezaten, hau da, euskara euskal gizartearen agendan edukitzen.

Ez dago behar besteko koordinazioa Estatuko Administrazioaren eta hizkuntza koofiziala duten lurraldeetako erakunde publikoen (Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako, Kataluniako, Valentziako, Balear Uharteetako eta Galiziako gobernuak), ez eta erakunde publiko horien eta Europako Kontseiluaren artean. Ebaluazioak duen garrantzia azpimarratzeko atal honen amaieran, derrigorrezkoa da aipatzea, baita ere, ebaluazio prozesuek agerian utzi dituzten sistemaren akatsak. Ez naiz ari Gutunaren konpromisoak ez betetzeari edo hein batean ez betetzeari buruz. Ari naiz Autonomia Erkidegoen partaidetzari buruz; izan ere, Autonomia Erkidegoek aukera izan beharko lukete Gutunaren 15.1 eta 16.3 artikuluetan aurreikusitako jardueretan parte hartzeko: lehenbizi, Gutunaren II. eta III. zatietako konpromisoei dagokienez Estatuan garatutako politiken gainean Estatuak berak Europako Kontseiluaren Idazkaritza Nagusira bidaltzen dituen behin betiko txostenak egiteko prozesuan parte hartuz; eta, bigarren, Adituen Batzordeak Ministroen Batzordearentzat prestatutako amaierako txostenean, hark aztertu eta onartu aurretik, oharrak egiteko aukera edukiz. Hau oso garrantzi handiko kontua da, kontuan hartzen badugu Espainiak lortzen duen Gutunaren betetze maila handia Autonomia Erkidegoen ekintzari esker dela, alde batetik, Espainian dagoen hizkuntza aniztasunaren antolaketa sisteman «beste hizkuntzen» gaineko eskumena batez ere Autonomia Erkidegoetan dagoelako eta, bestetik, Estatuaren jarrera erreala —Autonomia Erkidegoena ez bezalako— «konpromiso gutxikoa» dela —esan dezagun horrela— Gutunaren bi zatietako eginbeharrak betetzeari begira.³³ Kontsiderazio

Behatokiko, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko, Tokikom-eko eta Aurten Bai fundazioko ordezkariekin.

31 Espainiari buruzko lau ebaluazio txostenak hemen kontsultatu daitezke: www.coe.int/minlang.

32 Ikus Gutunaren jarraipenerako Adituen Batzordeak Espainiaren betetze mailari buruz egindako lau ebaluazio txostenetan euskarari eta Autonomia Erkidegoari buruz dioena eta, horren haritik, Ministroen Kontseiluak egindako gomendioak. Aurrerago xeheago azalduko dudana bezala, «osorik» bete diren konpromisoen % 95 euskal erakunde publikoen eskumenekoak dira, eta «hein batean» bete diren konpromiso gehienak (% 86), berriz, Estatuaren erakundearen eskumen esparrukoak dira.

33 Euskarari dagokionez, errepikapenik ez egiteko, ikus aurreko oharra (32. oin-oharra). Estatu osoaren ikuspegia hartuta, nabarmentzekoa da

hau argi eta garbi defendatzen dut euskararen kasurako. Alabaina, administrazio publikoen ardura duen Espainiako Ministerioak, 15.1 eta 16.3 artikuluetan aurreikusitako jarduerak garatzerakoan, erabat edo hein batean ahaztu ditu, kasu eta sasoiaren arabera, Autonomia Erkidegoetako aginte publikoak, bigarren ebaluazio zikloan izan ezik. Euskara eta Eusko Jaurlaritza ez dira ahanztura salbuespena izan.

Esate baterako, lehenbiziko kontrol zikloan, 2002an, Espainiak bere lehenengo informea aurkeztu zuenean ez zien laguntza edo parte hartzea eskatu Gutunaren obligazioekin zuzeneko zerikusia zuten eskumenak zituzten Autonomia Erkidegoei; horregatik, Eusko Jaurlaritzak bere kabuz bidali zizkion Europako Kontseiluari bere ikuspegia, informazioa eta balorazioa. Zorionez, prozedura erabat aldatu zen bigarren jarraipen zikloan.³⁴ Izan ere, kasu horretan, Gobernuaren Lehendakarietzako eta Lurralde Antolaketako Ministerioako arduradunek prozedura berri bat jarri zuten abian, gaztelaniaz beste hizkuntza ofizialen bat zuten Autonomia Erkidegoak aintzat hartzen zituena. Prozedura horren arabera, aldi berean egin ziren izaera orokorreko txosten bat, Estatuaren Administrazioak egina, eta Autonomia Erkidegoen sei txosten, gobernu autonomikoek eginak —tartean Eusko Jaurlaritzak egindakoa, euskarak EAEn zuzen egoerari buruzkoa—, Europako Kontseiluak prestatutako galde-sortari erantzunez. Ondoren, Estatuaren Administrazioak txosten bateratua egin zuen, aurreko guztietan oinarritua, gero Autonomia Erkidegoek berrikusia eta hobetua izan zena. Prozesu hartan hainbat lansaio egin zituzten elkarrekin Estatuaren Administrazioak eta Autonomia Erkidegoetako gobernuak. Horren guztiaren ondorioz, behin betiko txostena egin zuen Estatuak eta hura aurkeztu zion, 2007ko apirilean, Europako Kontseiluari, bigarren kontrol zikloaren barruan.

Denbora igaro ahala, ordea, bigarren ebaluazio ziklo hartan erabilitako metodologia ez da hobetu eta, aitzitik, atzerapauso nabarmena izan du zoritxarrez, 2016an argitaratua den laugarren txostena —orain artean azkena— egiterakoan gertatutakoa ikusita. Hain zuzen ere, laugarren kontrol zikloaren barruan, Eusko Jaurlaritzako, Kataluniako Generalitateko eta Galiziako Xuntako hizkuntza politikako arduradunek, hurrenez hurren euskarak EAEn, katalanak Katalunian eta galegoak Galizian zuten egoerari buruzko txostenak egin eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioari bidaltzeaz gainera, bi bider zuzendu zitzaizkion Ministerioari, 2013ko urrian eta 2015eko ekainean, Espainiako Estatuari buruzko txosten orokorra elkarrekin aztertzeko eta osatzeko prest zeudela adieraziz eta Adituen Batzordearen txostenari buruzko oharra egiteko aukera eskatuz; zehazki, Adituen Txostena Ministroen Batzordean aztertua izan aurretik, beren eskumeneko gobernuari zegozkien kontsiderazioetan oharra egin ahal izatea eskatu zioten Ministerioari. Hark, ordea, ez zuen onartu ez elkarlanerako eskaintza, ez eta Ministroen Batzordean aurreko urratsean parte hartzeko eskaera;³⁵ ez zuen kontuan hartu Europako Kontseiluarekiko solaskidetza, nazioarteko tratatu batean, Estatuari dagokion arren, Gutunaren aplikazioaren ardura materiala, funtsean, gobernu autonomikoena dela euskararen, katalanaren eta galegoaren lurralde esparruetan.

Euskararen kasu zehatzean, gainera, Adituen txostena Ministroen Batzordera bidalia izan aurretik Eusko Jaurlaritzak aztertzeari eta, beraz, oharra egiteko aukerari Ministerioak ezetza emateak beste ondorio bat izan zuen: Gutunaren 10. artikuluko (agintaritza administratiboak eta zerbitzu publikoak) konpromisoetako bat «konklusiorik gabe» agertzea, Estatuaren Administrazioak behar ziren argibideak bidali ez zituelako tramitearen une egokian (ikus Ebaluazio Txosteneko 404 eta 405 paragrafoak). Eusko Jaurlaritzak, Adituen Batzordearen behin-behineko txostena irakurtzen utzi ez zitzaionez, ezin izan zuen informazio zehatza eman, Batzordeak konklusio bat atera zezan. Hain zuzen ere, horixe da euskarari dagokionez «konklusiorik gabe» jo zen Gutuneko konpromiso bakarra. Zehazki, euskararen erabilera Ertzaintzan eta Osakidetzan sustatzeari buruzkoa zen. Adibide argigarria da hau, erakusteko behar-beharrezkoa izango litzatekeela Estatuko

lau ebaluazio txostenetan, hamabost urteko tarte batean, Adituen Batzordearen oharretan eta Ministroen Batzordearen gomendioetan behin eta berriz azpimarratzen direla izaera estrukturalako defizitak 9. artikuluari (Justizia) eta 10. artikuluari (Administrazioa) dagokienez, hau da, Estatuko erakundeen eskumeneko eremuetan.

34 Adituen Batzordeak, 2. Kontrol Txostenean (2008an onartua), hau adierazi zuen: «Estatuko agintaritzen eta hizkuntza koofiziala duten autonomia erkidegoetako agintaritzen arteko elkarlanak ahalbidetu du espainiar agintariek egindako bigarren txostena lehena baino osoagoa eta xehetua izatea» (ikus C ondorioa).

35 Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateko eta Galiziako Xuntak, 2007ko martxoaren 16an, hizkuntza politikan lankidetzan aritzeko Protokolo bat sinatu zuten. Protokolo hartan hainbat konpromiso hartzen zituzten elkarrekin lantzeko, besteak beste Gutunaren aplikazioa Espainian bultzatzea eta Estatuaren Administrazioari Gutunaren aplikazioarekiko jarrera aktibo bat eskatzea. Protokolo horren esparruan, hain zuzen ere, Gutunaren aplikazioa Espainian ebaluatzeko IV. Txostena egiteko prozesuan, hiru gobernu autonomiko horiek Espainiako Gobernuari planteatu zioten parte hartzea Adituen Batzordearen amaierako txostena berrikusteko fasean, Ministroen Batzordera bidalia izan aurretik. Gutunaren gaia kudeatzeko ardura zuen Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Zuzendaritza Nagusiak ezekoa adierazi zion 2015eko uztailean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari.

Administrazioaren eta hizkuntza politikako eskumenak dituzten Autonomia Erkidegoen arteko koordinazioa gaur egun dena baino handiagoa izatea. Gutunak aplikazio eraginkorragoa izango luke koordinazio hori ahalbidetuko balitz. Laugarren txostenean behar bestekoa izan ez zen koordinazioa egingarria eta eraginkorra zela erakutsia baitzuen bigarren kontrol zikloko prozedurak.

2.2 Konpromisoen irismena eta betetze maila (altua) Euskadiko Autonomia Erkidegoan

Gutunaren irismena Estatuan eta EAEn. Hizkuntza aniztasunak Europako historia mugarritu du. Oro har, Nazio-Estatuek bilatu nahi izan duten «identitate nazional bakar eta uniformeak» sendotzeko arazo eta eragozpen modura ikusia izan da.³⁶ Salbuespen zena, eta, politika homogeneizatzaileen arrakasta gorabehera, oraindik ere salbuespen dena hartu nahi izan da normaltzat: elebakartasuna. Espainiako Estatuak ere norabide horretan jo du. Espainian gatazkatsua izan da gaztelaniaren eta gainerako hizkuntza bizien arteko harremana, frankismoa baino askoz lehenagotik. Mendetan zehar Estatuaren agintek gaztelania hautatu dute batasun eta homogeneotasun nazionalerako. Eta, hala ere, Errege-Erregina Katolikoaren garaian hasi eta nabarmendutako hizkuntza homogeneizatorako ahaleginek, hein handi batean, porrot egin dute. Horregatik, 1978ko Espainiako Konstituzioak Espainia eleaniztunerako antolamendu juridikorako oinarriak jarri zituen. Konstituziotik abiatuta Autonomia Estatutuak etorri ziren —lehenbizi EAEn (1979), EAEn ofizialtasun bikoitza arau bihurtzen duena— eta hizkuntzen normalizatorako legeak (1982 eta 1998 artean). Euskararen erabilera normalizatzeko Legea 1982an onartu zen, eta Espainiako Gobernuak aurkeztu zuen inkonstituzionaltasun errekurtsioa oso neurri zabalean gainditu zuen. Guztira, sei Autonomia Erkidegok aldarrikatu zuten ofizialtasun bikoitza beren Autonomia Estatutuen bitartez: Euskadi, Katalunia, Galizia, Valentzia, Balear Uharte eta Nafarroako erkidegoak (Nafarroan, jakina denez, ofizialtasun bikoitza eremu jakin batera mugatuta). Asturias, Castilla y León eta Aragoiko Autonomia Estatutuak ere jasotzen dituzten beren hizkuntzak babesteko arauak. Kataluniako Autonomia Estatutua 1979an onartu zen eta 2006an erreformatu. Erreforma jaso zuen 6/2006 Lege Organikoak, uztailaren 19koak, Kataluniako Autonomia Estatutua erreformatzekoak, 6.5 artikuluan xedatzen du araneraren ofizialtasuna Arango Haranean. Gogorarazi behar da Konstituzioak, 3. artikuluan, xedatzen duena: «Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala» eta «Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan beraien Estatutuei dagozkien eran».

Gutunak Espainiako Estatuan, eta bereziki EAEn, duen irismena zuzenean dago lotua hizkuntza aniztasunari Espainiako araubide juridikoan eman zaion eta aipatu berri dudana trataerarekin. Gutuna berretsi zuen unean, Espainiak konpromiso mailarik handiena hartu zuen (har zitzakeen III. zatiko 35 konpromiso bakarrik, hartu zituen 68ak hartu ordez, hau da, ahal ziren guztiak hartu ordez), baina konpromiso maila goren hori beren Estatutuetan elebitasun ofizial bikoitza zuten Autonomia Erkidegoetara mugatu zuen. Sei Autonomia Erkidegootan aitortutako ofizialtasun estatusa, haien hizkuntza normalizatorako legeak eta legeok izan dituzten garapen sektorialeak, hainbat alderditan, Gutunak berak «eskualdeetako» hizkuntzei aitortzen dien babes maila baino handiagoa arautzen dute. Ondorioz, Espainiako Parlamentua behartua zegoen Gutunaren babes maila gorena hautatzera; eta halaxe egin zuen ofizialtasun bikoitzeko lurralde eremuetarako, baina babes maila txikiagoa hautatu zuen Autonomia Estatutuetan ofizialtasun aitortzarik ez duten baina aitortza espezifikoren bat duten hizkuntzen eremuetarako.

Gogoan hartu behar da Gutunak gutxienez bete beharreko lege izaera duela bera onartu eta berretsi duten Estatuetako herri-aginte guztientzat eta, beraz, Estatu bakoitzeko legeria propioa nahitaez egokitu behar dela Gutunaren xedapenak jasotzeko. Baina ez da gehieneko izaera duen arau bat, ez da gainditu ezin den sabaia eta, beraz, hobetu daiteke Gutunak babesgai dituen «eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak» babesteko Estatuak berak eta Autonomia Erkidegoek bultzatutako legerien eta hizkuntza politiken bitartez (ikus 4.2. art.). Euskarak EAEn duen babes maila —eta ofizialtasun bikoitza duten beste Autonomia Erkidego batzuetako hizkuntzek ere— Gutunaren babes maila gorena baino sendoagoa da. Beraz, errealitate horrek esplikatzeko du, hein handi batean, Estatuak zergatik hautatu zuen EAEn eta arestian aipatutako beste bost Autonomia Erkidegoetarako Gutuneko konpromiso guztiak bereganatzea: kontrakoa egitea ulergaitza izango

³⁶ Ikus LEZERTÚA RODRÍGUEZ, Manuel: “Giza Eskubideen Europako Hitzarmen eta eremu urriko hizkuntzak babesteko beharra”. ZENBAIT EGILE: *Eremu urriko hizkuntzen babesa Europan: hamarkada berri baterantz, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia*, 2011. «Hizkuntza-aniztasuna tratatzeko modua estatu-nazio modernoaren interes nagusien arabera izan da Europan, eta interes horien artean dago, badakigunez, elebakartasunaren defentsa. Izan ere, elebakartasunaren defentsa entitate nazional anitzak bateratzeko bide gisa erabili da zenbait kasutan, baina baita nortasun nazional bakarria indartzeko modu gisa ere».

zatekeen Autonomia Erkidegoetan indarrean zeuden lege babesak aintzat hartuta; baina gogoan har bedi babes maila gorenerako konpromiso hori bakar-bakarrik Gutunaren beraren babes maila baino handiagoa zuten lurraldeetarako hartu zuela, ez Estatu osorako. Artikulu honen irismenetik kanpo geratzen da —nahiz eta garrantzi handiko aztergaia litzatekeen— aztertzea Estaturako eta botere publiko azpiestatalentzako zer inplikazio dituen Gutunaren II. zatiaren aplikazioak euskara ez beste hizkuntzei dagokienez.

Gutuna Estatuan eta Euskadin betetzeko eta betearazteko erantzukizuna duen organoa. Bada galdera bat mahai gainean jarri nahi dudana Gutunak Estatuan eta EAEn duen irismenaz gogoeta egiterakoan. Saihestu ezineko galdera bat da, hauxe: norena da Gutuna betetzeko eta betearazteko erantzukizuna? Estatuarena da, ala ez da? Hala balitz, zer puntutaraino letorke bat Estatuaren jarrera erantzukizun horrekin?

Nazioarteko tratatu bat denez gero, Gutuna onartzeko eskumena Estatuaren erakundeei dagokie. Erabaki hura hartzeko garaian, ordea, Estatuako erakundeek ez zituzten ezertarako ere aintzat hartu Autonomia Erkidegoak, nahiz eta Gutuna betetzeko obligazioa haiek duten eta, halaber, haiei dagokien beren lurraldeetan ofizialtasun bikoitzaren legeria garatzea eta gauzatzea. Gainera, Konstituzioaren hizkuntza aniztasunaren ereduak gaztelaniaren ofizialtasuna estatu osora hedatzen du, baina «beste» hizkuntzen ofizialtasuna beren autonomia erkidegoetara mugatzen du. Horrela, Estatuaren erakunde zentralek ez dute kontsideratzen gainerako hizkuntzen ofizialtasunak beren buruari eragiten dionik eta elebakarrak dira eta hala izaten jarraitzeko borondate irmoa dute.³⁷ Kontzepzio hori 1978ko Konstituzioaren elebitasun territorializatuaren kontzepzio erradikal bat da, erradikala eta aniztasunaren defentsarako desegokia. Kontzepzio horren eraginez, elebitasunaren legezko obligazioak, ia guztiak, ofizialtasun bikoitzeko Autonomia Erkidegoetako erakundeei legozkieke, eta Estatuaren erakundeak obligaziorik gabe geratuko lirateke (salbu eta web orrien erabileran eta ministerioetako zenbait dokumentu eta formularioren erabileran, eta ezer gutxi gehiago). Puntu honetan, gogorarazi nahi dut Espainiako Gobernuak egin zuela saio bat, huts egin bazuen ere, inkonstituzionaltasun errekurtsioa aurkeztu zuenean 1982ko Euskara Legearen kontra, planteatu zuenean Estatuaren Administrazioak EAEn zituen organoak salbuetsita gera zitezkeen euskararen ofizialtasunak zekartzan obligazioetatik.³⁸ Harrezkero hogeita hamasei urte igaro diren arren, tamalez, Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi zuen ahalegin haren espiritua bizirik dago oraindik eta eragiten ari da Gutunak EAEn duen aplikazioan.³⁹

Estatuak eleaniztasuna arautzeko eredu honi buruz egiten duen interpretazioa, modu grafiko eta kolokialean esanda, honela adierazi liteke: «Arduratuko naiz gaztelaniaz Espainia osoan (normalena baita Estatuaren erakundeek gaztelaniaz funtzionatzea), eta arduratu daitezela Autonomia Erkidegoak beren hizkuntza koofizialez beren lurraldeetan».⁴⁰ Interpretazio hori dela medio, Estatuak, oro har, ez da arduratu beste hizkuntzez, eta «gaztelaniaren zaintzaile» rola betetzera jo du askotan, «beste hizkuntza espainiarren» zabalkundeak ikusita, zabalkunde hori gaztelaniarentzako mehatxu bezala ikusi baitu.⁴¹ Honen guztiaren emaitza ezaguna da: Espainia eleaniztun bat, baina elebakarra balitz bezala jokatzeko Administrazio eta erakunde zentral batzuk. Horren adibide argia dugu Auzitegi Konstituzionalaren web orria: bertan edozein herritarrek ditu eskura «Goi Epaitegi honen epai garrantzitsuenen oinarri juridikoak, gaztelaniaz ez ezik, ingelesez, frantsesez eta alemanez», orrian bertan iragartzen den moduan, baina «beste hizkuntza espainiar» ofizialak ikusezinak dira, besterik gabe. Honelako egoerak inola ere ez datoz bat Estatu eleaniztuna izatearekin

³⁷ Aipagarria da, adibide ezagun askoren artean, legez ezinezkoa dela Diputatuen Kongresuan erabiltzea Konstituzioaren 3.2 artikuluan aurreikusten diren hizkuntza ofizialak. 2011ko martxoaren 22an ezetsi egin zen Diputatuen Kongresuaren Erregelamendua, autonomia erkidegoren batean ofizialak diren hizkuntza ofizialak erabiltzeko dagokionez, erreformatzeko proposamena (ikus 410/000012 espedientea, hemen: www.congreso.es). Estatuaren erakunde zentralek ez dituzte oraindik berariazko arauak gaztelaniaz besteko hizkuntza ofizialak beren baitan erabiltzea baimentzeko eta erregulatzeko, Konstituzioaren 3. artikulua interpretazio erabat murriztaile bati eutsiz.

³⁸ Euskararen Legeari buruz Auzitegi Konstituzionalak emandako 82/1986 epaiak hau dio: «gainerako hizkuntza espainiarren koofizialtasunak lurralde autonomoan kokatua dauden erakunde publiko guztiak hartzen ditu, salbuetsi gabe Administrazio Zentralaren nahiz bestelako erakunde estatalen organoak».

³⁹ Ikus 4. Txosteneko 396, 397, 398, 401 eta 422 paragrafoak, Gutunaren 10. artikuluari buruzkoak. Aipatutako paragrafoetan, Estatuaren Administrazioak EAE dituen organoek metatzen dituzte Gutunaren ez betetze «partzialak» (ez osoak).

⁴⁰ Ikus www.congreso.es Diputatuen Kongresuko Bilkuren Egunkaria, Osoko Bilkura, 2011-03-22, 11-14 or.: presidente José Bono jaunaren eta Talde Popularreko bozeramaile Astarloa jaunaren mintzaldiak.

⁴¹ Ikus bitez, erabili ohi den argudioaren adibide modura, Talde Popularreko bozeramaile Laura Garrido andrearen hitzak, 2007koak, Eusko Legebiltzarrak izandako osoko bilkura batean Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikari buruz esanak: «politika hori gaztelaniaren marjinazioan oinarritzen da» (www.legebiltzarra.eus, Bilkuren Egunkaria VIII. Legealdia, 58 zk.), edo María Dolores de Cospedal andreak eta Javier Arenas jaunak (PPko ministroa eta ministro ohia, hurrenez hurren, eta biak ere garaiko Espainiako alderdi politiko nagusiko goi karguak) 2008an esandako hitzak, Kataluniako hizkuntza politikari buruz: <http://ecodiario.eleconomista.es/politica/noticias/639169/07/08/El-PP-promete-partirse-la-cara-por-el-castellano-ante-la-postura-de-la-Generalitat.html>.

eta inkoherenteak dira Konstituzioaren 3. artikuluekin, hizkuntzen «babes berezi» eta eraginkor bakarra erabiliak izatea baita.

Arestian aipatutako guztia kontuan hartuta, uler daiteke —onartu ez, ordea— Estatuaren erakunde zentralek uzkur eta gogoz kontra jokatzea Gutunaren helburu, printzipio eta konpromisoen aurrean, eta haien praktika eta politika linguistikoak urrun egotea Gutunak ezarritako helburu eta printzipioetatik, bereziki aitzin solasean, zazpigarren artikuluan eta III. zatian jasota dauden eta Administrazio eta erakunde zentraletako organoek bete beharko lituzketenetatik.

Europako Kontseiluaren Aditu Batzordeak, 2005. urtean plazaratu zuen lehenbiziko txosten hartan hasita, behin eta berriz errepikatzen du hauxe: «Praktikan, Gutunaren aplikazioaren erantzukizuna, hein handi batean, autonomia erkidegoetako Administrazioarengan dago. Nolanahi ere, Aditu Batzordeak gogorarazten du Espainiako Gobernuak duela erantzukizun orokorra eta amaierakoa, Gutuna aplikatu dadin zaintzeko» (ikus 2. Txosteneko 63 paragrafoa eta 1. Txosteneko J konklusioa). Adituen Batzordeak beste urrats bat egiten du IV. Txostenean. Izan ere, kontsiderazio horretaz gainera, ohartarazten du hainbat konpromiso betetzeko zailtasun handiak daudela eta horien jatorria Estatuan dagoela: «Estatuko agintariek nazioarteko tratatuak betetzeko azken erantzukizuna izateaz gainera, Gutunetik eratorritako zeregin batzuk Estatuaren agintarien zuzeneko eskumena dira. Espainiako testuinguruan zailtasun handienak dituzten zereginak justiziaren eta Estatuaren administrazio periferikoaren arlokoak dira, Gutunaren III. zatiaren arabera» (71 paragrafoa). Gutuna betetzeko zailtasunak jartzen dituen justiziaren eremua Estatuaren eskumenekoa da eta halaxe adierazten du Adituen Batzordeak IV. Txostenean: modu orokorrean aipatzen du sarreran («Botere Judizialaren Lege Organikoa da Gutunaren 9. artikulua betetzeko oztopo nagusietako bat», 4 paragrafoa), eta berariaz berresten du Gutunaren III. zatiari dagokionez hizkuntzaz hizkuntzako ebaluazio ataletan (aranerarenean salbuetsiz). Ildo berean, Ministroen Kontseiluak Espainiako agintariei egiten dizkien sei gomendioetatik lehena eta bigarrena justiziari buruzkoak dira eta Autonomia Erkidegoenak ez diren gaietakoak, hain zuzen (marko juridikoaren erreforma eta botere zentralen mendeko pertsonal judiziala).

Labur bilduz, euskararen kasuan paradoxa handi bat gertatzen da: Estatuak hautatu zuen Gutuneko babes maila altua eta Gutunaren betetze maila altua, Estatuak harrotasunez aipatu ohi duena, errealitatea dira, baina ez, ordea, Estatuaren Administrazioak eta erakunde zentralek bultzatu duten praktikagatik, baizik eta euskal erakunde publikoek eta euskal gizarteak Gutunaren III. zatiko esparru guztietan bultzatu duten praktikagatik eta garatu dituzten hizkuntza politikengatik, behin baino gehiagotan, gainera, Estatuak berak jarritako oztopoak gainditu behar izan dituztelarik. Egia hori baita: euskarak eta euskal erakunde publikoek gehiegitan urratu behar izan dutela Gutunaren eta euskal hizkuntza legeriaren bidea Estatuaren laguntzarik gabe eta, batzuetan, Estatuak ezarritako eragozpenak gainditu beharrez. Antzeko gauza gertatu da, baita ere, Estatuak gainerako hizkuntza koofizialen kasuan ere.⁴² Paradoxarekin jarraituz, Hizkuntzen Gutunari dagokionez, esan genezake benetako Estatu —berez Gutuna betetzeko obligazioa duena, tratatu internazionala denez— ez dela Espainiako Estatu, baizik eta Autonomia Erkidegoak direla, Estatuaren erakunde zentralen inhibizioarekin. Nazioarteko tratatu hau betetzeko prozesuan, Estatu bera baino «estatuago» dira Autonomia Erkidegoak.

Gutunaren betetze maila altua da EAEn. Gutunak Espainian duen aplikazioaren ebaluaziorako egin diren lau txostenak arretaz irakurriz gero, hiru kontu geratzen dira agerian gutxienez: azken hamarkadetan euskal erakunde publikoek garatu dituzten hizkuntza politikak bat datozela Gutunaren helburu eta printzipioekin; lehenengo txostenetik orain arte azkena den laugarren txostenera bitartean, euskal erakunde publikoek aurrerabide iraunkor bat mantendu dutela Gutunaren konpromisoak beren eskumen eremuan betetzeko; eta konpromisoak erabat betetzeko izan diren zailtasunak estatuaren Administrazio eta erakunde zentralen eskumeneko arloetan gertatu direla. Espainiari buruz gaur egun arte egin diren lau ebaluazio txostenetan (2005-2016) jaso diren ibilbideak eta bilakaerak erakusten digute monitorizazio prozesuan argiak euskal erakundeek eta euskal gizarteak sortuak direla, eta itzalak, berriz, nagusiki Estatuak eginak direla. Eta, esan dezadan berriz ere: argiak nagusi dira, nabarmen, itzalen aldean. Itzalen erantzukizuna ezin zaio Gutunari berari leporatu, baizik eta hura betetzeko ardura legez dagokien erakundeen politikiei.

⁴² Ikus 4. Txostenaren sarrera, non Adituen Batzordeak hau adierazten duen: «Autonomia Erkidegoen erantzukizunean sartzen diren zereginak oro har bete egin dira» (3 paragrafoa); «Hala ere, laugarren monitorizazioaldi honetan ikusi da aurreko monitorizazioaldian identifikatu ziren arazo larri batzuek irauten dutela. Ez da legeria aldatu organo judizial edo estatalen aurrean eramaten diren prozesuak hautatutako hizkuntzan egiteko eskubidea zaintzeko, nahiz eta Ministroen Batzordeak horretarako gomendioak eman» (4 paragrafoa); «Errepikatzen den arazo bat zera da: Estatuaren Administrazio arlo batzuetan dagokion hizkuntza erabil dezakeen pertsonal falta» (5 paragrafoa).

Adituen Batzordearen iritziz, EAEn garatu diren hizkuntza politikek balorazio positiboa merezi dute eta halaxe adierazi dute beren txosten guztietan. Adibidez, 1. Txostenean bertan (2005) hau adierazi zuten: «Gutunaren esparru batzuetan euskararen erabilerak izan duen hazkundera nabarmena izan da azken hamarkadetan, eta horrek erakusten du hizkuntza politikek oso eragin positiboa izan dutela euskararen egoeran» (ikus H konklusioa). Eta orain arteko azkena den txostenean (2016) hau adierazi du Batzordeak: «Adituen Batzordeak balorazio positiboa egiten du euskararen erabilera sustatzeko ahaleginei buruz» (58 paragrafoa).

Hamarkada hauetan zehar euskara sustatzeko hizkuntza politiken oinarri izan diren plangintza eta adostasun tresnak ere nabarmendu dituzte Adituen Batzordeek, haien balorazio positiboa jaso baitute.⁴³ Eusko Jaurlaritzaren ekintza zehatz batzuek ere adituen balorazio positiboa jaso dute, nahiz eta, kasu batzuetan, neurri batean auzitan ere jarri ziren Euskadin. Ikus ditzagun hiru adibide. Lehena, Elebide - Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuaren sorrera da. Berari buruz Batzordeak hau dio: «euskal agintariek euskararekin duten konpromiso irmoaren adibidea da» (2. Txostena, J konklusioa). Bigarrena kontsumitzaileen hizkuntza eskubideekin lotua dago; izan ere, Adituen Batzordeak 6/2003 Legeak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuarenak, ezarritako hizkuntza eskubideen babesa era positiboan baloratu ondoren, «dei egiten die euskal agintariei ezarritako marko juridiko berria aplikatzeko dekretua onar dezan» (2. Txostena, 621 eta 623 paragrafoak). Txosten hori argitaratu zen urte berean (2008), Eusko Jaurlaritzak 123/2008 Dekretua onartu zuen, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoa. Eta hirugarren adibidea da 2007an Euskadi, Katalunia eta Galiziako gobernuek hizkuntza politikan elkarlanean aritzeko sinatu zuten Akordioa (erreferentzia 35. orri-oinean). Zehazki, Adituen Batzordeak «Katalunia, Galizia eta Euskadiko autonomia erkidegoak goraipatzen ditu beren lurraldeetan beren hizkuntzak biziberritzeko eta normalizatzeko politika egituratuak bultzatzeagatik (...) goraipatzen ditu, baita ere, hiru urterako lankidetzak hitzarmen bat sinatu dutelako hizkuntza kontuetan esperientziak konparatu eta trukatzeko» (2. Txostena, F konklusioa). Bitartean, Eusko Jaurlaritzak akordio hartan parte hartzea auzitan jarri zuen Euskadiko talde politiko batek Legebiltzarraren egoitzan.⁴⁴

Mugaz gaindiko lankidetzaren esparruan, Adituen Batzordeak positiboki baloratu du Eusko Jaurlaritzak eta Frantziako Euskararen Erakunde Publikoak sinatu zuten elkarlanerako akordioa. Elkarlan horretan, besteak beste, aurreikusten zen Eusko Jaurlaritzaren ekarpen ekonomiko bat jasotzea, eta 2000ko hamarkadaren erdialdean jarri zen abian. Akordio hura ere auzitan jarri zuen sektore batek Eusko Legebiltzarrean.⁴⁵ Ildo beretik, 1. Txostenetik hasita (2005) Adituen Batzordeak behin eta berriz azpimarratu du Gutunaren esparruan Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaren beharra; hala, goraipatu egin zuen bi erkidegoen arteko harremanetan 2008. urtean izandako «aldaketa historikoa»⁴⁶ eta elkarlan horretan sakontzera animatu zituen bi gobernuak; eta 4. Txostenean dei egin zien «nafar agintariei Euskal Autonomia Erkidegoko irrati-telebista publikoko kanal digitaletako seinalea jasotzea bermatzera» (318 paragrafoa), dagoeneko errealitatea dena.

Arreta berezia merezi du 4. Ebaluazio Txostenean Adituen Batzordeak berariaz aipatzea 10. artikulua 3.a) ataleko konpromisoa bete egiten dela orain, aurreko txostenaren garaian ez bezala; izan ere, atal horretan esaten da agintaritzak publikoek edo haren izenean diharduten beste pertsona batzuek ematen dituzten zerbitzuetan zaindu behar dela «zerbitzua ematerakoan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen direla». Arreta merezi duela diot, zeren kontu hau ere eztabaidagai izan da eta Estatuko Administrazioak justizia auzitegiatarara ere jo izan du, izaera orokorrez argudiatuz ezin dela inolako hizkuntza beharkizunik ezarri

43 Azken hiru ebaluazio txostenetan (2008, 2012, 2016), Adituen Batzordeak balorazio positiboak egiten ditu estrategia eta plangintza dokumentu hauei buruz: «EBPN – Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia», «Hizkuntza Politika aurrera begira – 2005-2009 proiektua», «Euskara 21» eta «ESEP – Euskara Sustatzeko Ekintza Plana».

44 Euskal Talde Popularrak «kontrako idazki» bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateak eta Galiziako Xuntak sinatutako akordioaren aurrean, besteak beste, bozeramaileak azaldu zuenez, akordioaren atzean «gatzelania margintzeko interesak eta politika daudelako». Kontrako idazkia ezetsi egin zuen Legebiltzarraren Osoko Bilkurak 2017-03-30ean, kontrako 61 botorekin eta aldeko 13rekin (www.legebiltzarra.eus, Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, VIII. Legealdia, 96 zk., eta Bilkuren Egunkaria, 58 zk.).

45 PP eta UPyD alderdietako ordezkariak Eusko Jaurlaritzak elkarlan akordio horretara ekarpen ekonomikoa egitearen kontra azaldu ziren erabat. Ikus: www.legebiltzarra.eus, Eusko Legebiltzarra, Ogasun eta Aurrekontu Batzordea, Bilkuren Egunkaria, 2015-11-04.

46 2008ko urtarrilean Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak izenpetu zuten Borondatean Adierazpenari buruz ari zen Adituen Batzordea, desadostasun garai luze baten ondoren, hizkuntza politikaz lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu baitzuten orduan bi gobernuak.

kontratazio administratiboan.⁴⁷ Nolanahi ere den, Administrazio zentralaren irizpide orokor negatibo horren kontra, toki eta foru erakundeak hizkuntz irizpideak erabiltzen ari dira kontratazioan, baina horren analisisa eta horri buruz izan diren epaiena artikulu honen mugez kanpo geratzen da. Eusko Jaurlaritza hizkuntza irizpideak aplikatzen ari da kontratazio administratiboan 2006ko otsailean Gobernu Kontseiluak berariaz onartutako araudi baten arabera, eta 2016ko apirilean Instrukzio bat onartu zuen, Eusko Legebiltzarrak eskatuta, kontratazio administratiborako hizkuntza irizpide berriak ezarriz, beste erakunde publiko batzuetan ere aplikagarri direnak. 4. Txostenean, Adituen Batzordeak gogorarazten du 3. txostenean dei egin zela «agintariei euskara lizitazio publikoetan erabiltzeko obligazioa sartzera» (410 paragrafoa), eta, ondorioz, hau adierazten du: «Administrazio autonomikoaren kontratu administratiboak esleitzeko garaian hizkuntza baldintzak ezartzea arautzen duten eskualdeko xedapenak ere mantendu egin dira eta exijitzen dute klausula jakin batzuk jasotzea eskaini nahi diren zerbitzuak emateko behar diren hizkuntza baldintzekin» (411 paragrafoa). Hortaz, Adituen Batzordeak «kontsideratzen du orain bai, betetzen dela konpromisoa» (412 paragrafoa).

Orobat, nabarmendu behar da Adituen Batzordeak azpimarratzen duela, baita ere, Euskal Administrazioaren mendekoak diren polizia eta osasun arloetako zerbitzuetan euskararen erabilera hobetzen jarraitu beharra, nahiz eta aitortzen duen eta «txalotu egindako aurrerabidea» (405 paragrafoa). Horixe da Euskal Administrazioak urratzen jarraitu behar duen eremua, Gutuneko 68 konpromisoak osorik betetzeko bidean.

Amaierako laburpen gisa, akatsik ezean, Europako Kontseiluaren 4. Kontrol Txostenaren azterketa xehetua eginda eta Adituen Batzordeko kide den Fernando Ramallo jaunak⁴⁸ emandako informazioa aztertuta, ondorioztatu dezakegu, Gutuneko 68 konpromisoetatik, EAEn “osorik” betetzen direla 60, “hein batean” betetzen direla 7, eta konpromiso bat geratzen dela «konklusikorik gabe», informazio gehiagoren zain. Emaizta hori xehetuta, ikus dezakegu osorik betetzen diren 60 konpromisoetatik gehien-gehienak (% 95etik gora) Euskal Administrazioaren eskumenekoak direla, eta hein batean betetzen diren 7etatik 6 Estatuaren eskumenekoak direla eta 1 bakarrik Euskal Administrazioarena, zehazki osasun arloko zerbitzuei buruzkoa. Azkenik, «konklusiorik gabe» jotzen den konpromisoa Euskal Administrazioaren mendekoak diren osasun eta polizia arloei dagokie. Beraz, 4. Txostenaren arabera, ez dago «bete gabeko» konpromisorik euskarari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoan. Espainiako Estatu osoari begiratuta, katalana Katalunian eta euskara EAEn dira «bete gabeko» konpromisorik ez dutenak, eta bi kasutan hirurogeina konpromiso dira osorik betetzen direnak.

Hortaz, euskarari dagokionez EAEn oso altua da Gutunaren betetze maila, baina erantzukizuna duten bi administrazioen ekarpena, hau da, Euskal Administrazioaren eta Estatuaren Administrazio Zentralaren ekarpenak oso desorekatuta daude. Esan liteke ebaluazio txostenenetan eta, batik bat, orain arteko azkena den laugarrenean (2016) Euskal Administrazioak *nota altua*⁴⁹ eskuratzen duela, Estatuak EAEn dituen administrazio eta erakundeak *nota aprobaturik* urrun geratzen dela eta oraindik ere jarraitzen duela izaten duela hamabost urte hasitako jarraipen prozesuan agerian jarritako gabezia ia berberak.⁵⁰ Kezkagarria da ikustea bete gabe edo hein batean bete gabe dituen konpromisoen artean batzuk izaera estrukturalekoak direla. Horiek bideratzen hasteko, beraz, Estatuaren erakunde zentralen aldetik jarrera aldaketa sakona beharko litzateke. Hasteko, prest egon beharko lukete Estatuaren barne legeria —lege organikoak eta horietatik eratorritako politikak barne— nazioarteko tratatuetara eta, hortaz, Hizkuntzen Gutunera egokitu beharko

47 Ikus, adibide modura, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak hartutako epai batzuk, Estatuaren Administrazio Orokorrak sustatutako errekursoak ebatziz, kontratazio administratiboaren alorrean hizkuntza baldintza ezarriz Gipuzkoako hainbat udalek eta Foru Aldundiak hartutako erabaki jakin batzuen kontra: Auzitegi Nagusiaren 3459/2015 epaia, 2015eko urriaren 6koa (Errenteriako Udalaren erabakiari buruzkoa); 2206/2016 epaia, 2016ko uztailaren 21ekoa (Ibarrako Udalaren erabakiari buruzkoa); 1590/2017 epaia, 2017ko maiatzaren 29koa (Gipuzkoako Foru Aldundiaren erabakiari buruzkoa).

48 Fernando Ramallo, Vigoko Unibertsitateko irakaslea, da Gutuneko Adituen Batzordeko kide espainiarra. Espainiako Senatuan 2017-04-21ean izandako Espainiako Hizkuntza Aniztasunari buruzko IV. Mintegian, Ramallo irakasleak hitzaldi bat eman zuen Gutunak Espainiako Estatuan zuen aplikazio egoerari buruz. Hitzaldi hartan, Gutunaren orainari eta etorkizunari buruz gogoeta ezin interesgarriagoak egiteaz gainera, informazio kuantitatibo zehatza eman zuen Gutunaren III. zatiko 68 konpromisoei begira ofizialtasun bikoitzeko sei Autonomia Erkidegoetan eta Arango Haranean zegoen betetze mailari buruz.

49 Uler bedi «nota» hitza adiera metaforikoan, noski; izan ere, Gutunaren ebaluazioa ez da «kalifikazio numerikoen» bitartez ematen, baizik eta zenbat eta zein konpromiso diren («beteak, bete gabek, hein batean beteak, formalki beteak, konklusiorik gabek») ebaluatuz eta ondoriozko gomendioak emanez.

50 Lau ebaluazio txostenetan berresten da Estatuaren erakundeek ziurtatu behar dutela 9. artikulua (Justizia) eta 10. artikulua (Administrazioa) betetzen dituztela beren eskumen esparruetan. Gogoratu 42. oin-oharra.

lukeela; eta, halaber, onartu beharko luke Estatuari ere badagokiola politika aktiboak garatzea euskararen erabilera sustatzeko EAEn dituen eskumen esparruetan. Legea bete eta betearazi, eredu izan: horra hor estatu demokratiko aurreratu baten ezaugarria. Ez da nahikoa «predikuak egitea», ez da nahikoa «fededuna» izatea: Estatuak «praktikantea» izan behar du, hizkuntza aniztasunaren kudeaketa ekitatibo bat egingo badu.

Estatuko administrazioaren zailtasunak Gutuna betetzeko. Gutunari buruz Espainian Adituen Batzordeak egindako lau ebaluazio txostenek (2005-2016) —Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak egindako azken gomendioak barne— ederki erakusten dute nola aplikatu den Gutuna Espainiako Estatuan hizkuntza babestu batzuen eta besteen testuinguruetan. Orobat, erakusten dute nola izan den gaiak zuzenean eragiten dien administrazioen politiken eboluzioa, bai Estatuaren politika zentralaren eboluzioa, bai autonomia, foru, probintzia edo toki politiken eboluzioa. Normala den bezala, Adituen Batzordearen iruzkinak aldatzen doaz txostenetik txostenera, ohikoa baita Gutunaren aplikazio zabal eta hobeago baten aldeko urratsak egitea. Hori, zalantzarik gabe, horrela izan da euskarari eta euskal administrazioei dagokienez. Alabaina, eta ukitu txiki batzuk edo erredakzio estilo aldaketaren bat gorabehera, txosten guztietan, lehenengotik laugarrenera, bere horretan uzten dira 9. artikulua 1a-1b-1c paragrafoen hein bateko betetze mailari buruzko gogoetak (mintzagai dira bertan prozedura judizialeko hizkuntza eta epaileen, magistratuen, fiskalen eta idazkari judizialen euskarako gaitasuna). Halaxe gertatzen da, halaber, 10. artikuluekin, zeinak mintzagai baititu euskararen erabilera estatuaren administrazio periferikoko zerbitzu publikoetan eta administrazio horrek EAEn dituen zerbitzuetako langileen hizkuntza gaitasuna. Era berean, behin eta berriz errepikatzen dira Ministro Batzordearen gomendioak, Espainiako Estatuari zuzentzen zaizkionak, gainditu daitezten eremu horietan Gutunaren betetze osoa eragozten duten arazoak. Alabaina, Ministro Batzordearen gomendio horiek ez dute arrakastarik izan, eta bi kasuetan urrun jarraitzen dute betetze maila eta Gutunean jasotzen den konpromisoa. Estatuari behin eta berriz bidalitako gomendioek erakusten dute zein eskasak izan diren (eta, batzuetan, inolakorik ez) erakunde zentralen aurrerapausoak.⁵¹

Bi arazoak (Justiziarena eta Estatuko administrazio periferikoarena) ez dira euskarara mugatzen. Aitzitik, ofizialtasun bikoitza duten eta Gutunaren III. zatia betetzeko obligazioa duten autonomia erkidego guztietan daude. Lehen kontrol txostenean jada (2005), Adituen Batzordeak nabarmendu zuen, Gutunaren III. zatiko hizkuntza guztiei zabaltzeko moduan nabarmendu ere, badela «zulo handi bat hartutako konpromisoen eta marko juridiko nazionalen eskaintako babes mailaren edota praktikaren artean» (C ondorioa). Segidan, txostenaren ondorioen apartatu berean, Adituen Batzordeak Justizia Administrazioa (prozeduren hizkuntza eta langileen hizkuntza gaitasuna) eta autonomia erkidegoetan egoitza duen Estatuko Administrazioa (langileen hizkuntza gaitasuna) eremu negatibotzat jo zituen 9. eta 10. artikulua betetzeari dagokionez (ikus 1. Txostena: D eta E ondorioak, eta Ministro Batzordearen 1. eta 2. gomendioak). Egoera ez da aldatu, 2016koa den 4. Txostenaren arabera (ikus Txostenaren 392, 397, 398 eta 401 paragrafoak eta 1, 2 eta 3 gomendioak).

Justizia administrazioari dagokionez, bi arazo bereizi behar dira. Batetik, Botere Judizialeko langileei ez zaie eskatzen hizkuntza eskakizunik (epaileak, magistratuak, fiskalak, idazkariak).⁵² Eusko Jaurlaritzak sustatu eta euskara ikasteko eskolak antolatu ditu, Justizia Ministerioarekin eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin hitzarmen bereziak sinatuta. Horietara langileok modu boluntarioan joateko aukera izan dute.⁵³ Baina euskararen ezagutza meritu bezala balioesten da. 4. ebaluazio txostenaren arabera, hogeitau hamar epailek eta beste horrenbeste fiskalek baino ez dute euskarazko hizkuntza gaitasuna beren lanbideak eskatzen duen mailan. Eremu horretan, arautzeko eskumena Estatuako erakunde zentralen esku dago, eta euskal administrazioa sustapen lanetara mugatzen da.

51 Estatuko Administrazio Orokorrek deialdi publiko bat egin du 4.725 plaza betetzeko Estatuako kidego orokorretan (ikus 2018-01-29ko BOE); horietatik 340 Administrazio Orokorrek EAEn dituen bakanteak betetzeko dira, Gobernuaren Euskadiko Ordezkaritzak adierazi duenez. Plaza horietako batean ere ez da eskatzen ez bermatzen euskararen ezagutza. Gabezia horrek areagotu egiten ditu Estatuak Gutuna betetzeko dituen zailtasun estrukturalak, eta urratu egiten ditu Gutunaren 10. artikulutik eratorritako konpromisoak betetze aldera Adituen Batzordeak eta Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak behin eta berriz Espainiari egin dizkioten gomendioak.

52 Hizkuntza koofiziala ezagutzea ez eskatzea, aipatu kidego judizial horiek duten legeria berezitik eratorritako ondorioa da. Ikus Gutunaren jarraipen txostenak: 1. Txostena (508 paragrafoa, D konklusioa eta II. Eranskina; Espainiako Gobernuak D konklusioari egindako iruzkina), 2. Txostena (577 paragrafoa), 4. Txostena (388 paragrafoa).

53 Ikus 2. Txostena (76, 578 eta 583 paragrafoak), 4. Txostena (388 eta 390 paragrafoak). Ikus «EAEko Justizia Administrazioiko Hizkuntza Normalizaziorako Plan nagusia, 2010-2020» (hemen: www.euskadi.eus).

Bestalde, hor dirau 6/1985 Lege Organikoak, Botere Judizialarenak,⁵⁴ 231. artikuluan dakarren zailtasun nabarmenak, bertako araudia bateraezina baita Gutunaren 9. artikuluko 1. a, 1. b eta 1. c paragrafoetan ezarritako betekizunekin. Horrela, Gutunak ezartzen du edozein motatako prozedura judizialean ziurtatuko dela organo jurisdikzionalak, «alde batek eskatuta» soilik, prozesua eskualdeko hizkuntza edo hizkuntza gutxituetan eraman beharra; baina Botere Judizialaren Legeak, 231. artikuluan, 1. apartatuan zehaztu ondoren epaileek, fiskalek, idazkariek eta Epaitegi eta Epaimahaietako gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dutela, 2. apartatuan dio organo jurisdikzionalak “autonomia erkidegoko hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dutela, non eta ez den alde bat aurka agertzen, alegatuz hizkuntza hori ez duela ezagutzen eta horrek indefentsioa eragin diezaiokeela” (neuk azpimarratua). Begien bistakoa da Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikuluko horrek, prozedura judizial jakin bateko aldeei dagokien eskubidea mugatzen duenez gero prozedura judizial hori autonomia erkidegoko hizkuntza ofizial propioan egiteko, errotik egiten diola aurre Gutunaren 9. artikuluari, eta hala egiten du nahiz eta Gutuna, Konstituzioaren 96. artikuluari jarraiki, Espainiako ordenamendu juridikoaren baitan egon, eta nahiz eta barne legediak –Botere Judizialaren Lege Organikoak ere bai, noski– nazioarteko itunera egokitu behar duen. Artikulu honetatik kanpo geratzen den gai bat bada ere, esango nuke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren araudi honek ofizialtasun bikoitz simetrikoa ere urratzen duela, hau da, Konstituzioaren 3.2 artikulua ondotik Euskal Herriko Autonomia Estatutuak eta 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoak, ezartzen duten ofizialtasuna, alegia.⁵⁵

Adituen Batzordeak eta Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak, 4. ebaluazio txostenenean, berriz ere eskatu diote Espainiako Estatuari «alda dezala lege markoa, hartara agerrarazteko autonomia erkidegoetako agintari judizial penal, zibil eta administratiboen hizkuntza koofizialean egin ditzaketela prozedurak baldin eta alde batek hala eskatzen badu» (ikus 1. Gomendioa). Orobat eskatu diote «jarrai dezala behar diren neurri juridiko eta praktikoak hartzen ziurtatzeko Gutuneko 9. artikulua eraginpeko autonomia erkidegoetan aritzen diren langile juridikoen ehuneko egoki batek baduela nahikoa ezagutza praktikoa hizkuntzei dagokienez» (ikus 2. Gomendioa). Hots, eskatzen da Botere Judizialaren Lege Nagusiaren 231. artikuluko hori aldatzea.

Azpimarratu behar da, halaber, Justiziaren eremua dela eskasena Gutunaren aplikazioari dagokionez. Esan dezagun eufemismorik gabe: Espainian indarrean hamazazpi urte eman ondoren, Gutuna, nazioarteko tratatua izanik eta ezinbestean bete beharreko legezko araua izanik, ia-ia bete gabea izaten segitzen du Justizia arloan, beronen eskumen zentralen eremuan zehazki esanda. Egia esanda, defizit hori bat dator ofizialtasun bikoitzaren legezko araudi autonomikoaren aurrean Justizia arloak duen betetze maila eskasarekin; eta hori hala baita, Autonomia Estatutuak hogeita hemeretzi urte bete baditu ere eta euskararen erabilera normalizatzeko legeak hogeita hamasei urte bete baditu ere.⁵⁶

Orobat, aipatutako zailtasunetan sakontze aldera, Botere Judizialaren Legeak, 100.2.h) artikuluari jarraiki⁵⁷, beste hesi bat jartzen dio Gutunaren 9. artikulua egiaz betetzeari, zeren eta, eskualdeko hizkuntza ofiziala jakitea plaza judizialak betetzeko «merezimendu» soilean utzita (badira epaiak, «lehenetasunezko merezimenduari» izaera erabakigarria ukatzen diotenak ere), traba garbi bat jartzen baitio plaza judizial jakin batzuetarako halaberrezko hizkuntza eskakizunak ezartzeari, autonomia erkidegoen errealitate soziolinguistikoaren arabera. Izan ere, horixe da egin beharko litzatekeena Gutunaren 9. artikuluko konpromisoari jarraiki.⁵⁸

⁵⁴ 1985eko uztailearen 2ko BOE. Zenbait berrikuspen izan ditu.

⁵⁵ Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua (1 eta 2 puntuetan) hierarkia nabarmena ezartzen du gaztelaniaren («Jarduketa judizial guztietan, epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegi eta auzitegiaren gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dute, estatuko hizkuntza ofiziala baita») eta Autonomia Erkidego batzuetan ofizialak ere badiren hizkuntzen artean («Orobat, autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegi eta auzitegiaren gainerako funtzionarioek, baldin eta alderdietako bat ere aurka agertzen ez bada»). Alegia: gaztelania erabiltzeko obligazioa, euskara erabiltzeko aukera baldintzatuaren aurrean (azpimarrak nireak dira). Bistakoa da horrela gaztelaniaren eta euskararen ofizialtasunaren simetria erabatekoa urratzen dela, hau da, Autonomia Estatutuaren 6. artikulua eta 10/1982 Lege oinarrikoak, azaroaren 24koak, euskararen erabilera eta normalizazioari buruzkoak, 3, 4, 5, 6 eta 9 artikuluetan ezarritako ofizialtasun simetrikoa, bi lege horien arabera euskara hizkuntza ofiziala baita gaztelania «bezal», gaztelania bezainbat alegia, hots, bi hizkuntzak ofizialak baitira erabilera berdintasuneko maila berean.

⁵⁶ Ikus hemen: www.legebiltzarra.eus (11\10\07\02\0556 espediente) Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justiziako sailburu María Jesús San Joséren dokumentua, “euskarak Justizia Administrazioan duen tokia buruz». Dokumentu horrek informazio zehatza ematen du behar besteko euskara gaitasuna egiaztatzen duten langile judizialen kopuruari buruz, epaile eta fiskalen hizkuntza araubideari buruz eta prozedura judizialak euskaraz egiteko zailtasunei buruz.

⁵⁷ 2013-06-29an argitaratutako eguneratzea. Ikus LÓPEZ BASAGUREN, Alberto: «Espainiako ordena konstituzionala eta Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna: aplikazio-arazo batzuk» (112-118 or.), in ZENBAIT EGILE: *Eremu urriko hizkuntzen babesa Europan: hamarkada berri baterantz*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2011.

⁵⁸ Ikus 1. Txostena (580 paragrafoa) eta LÓPEZ BASAGUREN, Alberto: «Espainiako ordena konstituzionala eta Eskualdeko edo Eremu Urriko

4. txosteneko 3. gomendioak Estatuko administrazio periferikoa du mintzagai, eta Estatuari eskatzen dio «har ditzala behar diren neurri legalak eta indartu ditzala neurri praktikoak hizkuntza koofizialen presentzia nahikoa ziurtatzeko autonomia erkidegoetan dagoen Estatuko Administrazioan». Gomendio hori oinarritzen da Adituen Batzordeak formulatzen duen ondorioan: «Espainiako agintariei eskatzea azter dezatela Estatuko Administrazio publikoaren prestakuntza eta egitura profesionala, bermatze aldera Estatuko Administrazioaren bulegoetan lan egiten duten langileen ehuneko nahiko batek euskararen ezagutza nahikoa duela» (ikus 422 paragrafoa). Hau da lau txostenetan errepikatzen den beste gomendio eta iruzkina. Horrek ere berriz agerian uzten du Estatuko Administrazioak duen inhibizioa eta «hutsune» sentimendua Gutunetik eratorzen diren betekizunei dagokienez eta ofizialtasun konstituzional eta estatutario bikoitzari dagokienez. Estatuaren «hutsune aktibo» bat egiten du Estatuak Gutunaren enborrezko obligazio diren batzuk betetzeari begira.

Deigarria da zinez, Autonomia Estatuaren 39 urteren buruan, Estatuko Administrazioak ofizialtasun bikoitzaren eskaeretara egokitu gabe jarraitzea EAEn. Gainera, aldi horretan, jarduera ez egokiak burutu ditu legearen ikuspegitik (hala berretsi dute Donostiako Administrazio Auzietarako Epaitegiaren eta EAeko Auzitegi Nagusiaren zenbait epaik). Jarduerok helburu zuten Estatuko Administrazioak balio administratiboa eta legezkoa ukatzea toki korporazioek Estatuko Administrazioari eskualdeko hizkuntza ofizialean soilik, hots, gaztelania bezala ofiziala den euskaraz soilik, bidaltzen dizkioten akten harrerari, aipatutako akten bidalketa/harrera baliogabetzat deklaratur.⁵⁹ Deigarria da, arestian esan bezala, Estatuaren Administrazioan oraindik bizirik egotea Konstituzio Auzitegiak (Euskararen Legeari buruz emandako 82/1986 epaian) Estatuaren nahiaren aurka ezetsi zuen elebitasun ofizialaren ideia zahar hura: Estatuaren Administrazioa EAEn ofizialtasun bikoitzaren betekizunetik aske geratu behar zuelako ideia, alegia, hutsean geratu zen kontzepzio oker horren arabera, obligazio horiek euskal administrazioei bakarrik aplikatu behar zitzaizkielakoan.

Tamalez, hori dena koherentea da Estatuaren instituzio zentralek izan duten praktika linguistikoarekin, Konstituzioaren berrogei urteren buruan ere haren 3.3 artikulua garatu gabe jarraitzen baitute eta, zenbait erakunde publikok bezala, Konstituzioa bera baino askoz atzerakoiagoa den hizkuntza politika bat praktikatzen baitute. Hainbat erakunde publikoren jarreraren erakusle eta EAEn Konstituzioaren 20.3 artikulua behar ez bezala aplikatzen dela antzemateko, aski da ikustea nola TVEk euskara agurtzeko hizkuntza soila («arratsalde on, buenas tardes») bihurtu duen bere eskualdeko albistegian, nahiz eta Konstituzioaren artikulua horrek ezartzen duen Estatuaren mendeko komunikabideek «Espainiaren hizkuntza aniztasuna errespetatuko dutela».

3 Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna hizkuntza aniztasuna kudeatzeko erronka berrien aurrean, hizkuntza ez hegemonikoak eta gutxituak kontuan hartuta

Gutunak bide luzea du oraindik aurretik, nahiz eta duela 20 urte sartu indarrean.⁶⁰ Egin duen bidea ikusita, gure buruari galde diezaiokegu zein diren Gutunaren erronkak, euskararen ikuspegitik ez ezik hizkuntza aniztasuna Estatuan eta European babestearen ikuspegitik. Ez naiz sartuko beste pertsona batzuek egin eta arrazoitu dituzten zenbait proposamenetan, hala nola, zeinu hizkuntzak kontuan hartuak izateko edo immigrazio hizkuntzak aintzat hartuak izateko egin izan diren proposamenetan.

Erronkez gogoeta egiterakoan, komeni da aintzat hartzea Gutunaren mugak, baina betiere azpimarratu behar da zein balio handia duen, besteak beste:

Hizkuntzen Europako Gutuna: aplikazio-arazo batzuk» (112-118 or.), in ZENBAIT EGILE: *Eremu urriko hizkuntzen babesa European: hamarkada berri baterantz, op. cit.*

⁵⁹ 2015ean, Administrazio Auzietarako Donostiako 3. Epaitegiak hainbat auto eta epai eman zituen. Epai haietan, legezko argudio sendoak erabiliz, hizkuntza hautuaren eskubidea herritarrei esleitzen ziren eta botere publikoei obligazioak esleitzen zizkien, eta banan-banan ezetsi zituen hainbat udal akordioaren kontra Estatuaren Administrazio Orokorrak aurkeztutako errekurso guztiak. Ezetsiak izan ziren errekurso haietan, Estatuaren Administrazioak balio juridikoa ukatu nahi ziren euskaraz idatziak ziren eta halaxe, gaztelaniara itzuli gabe, udaletatik Espainiako Gobernuaren Euskadiko Ordezkaritza bidalitako aktei. Eusko Jaurilaritza alderdi kodemandatu gisa agertu zen prozedura ugari haietako lautan. Estatuaren Administrazioak apelazioak aurkeztu zuen Euskadiko Auzitegi Nagusian eta Auzitegiak, aurreko urteetan emanak zituen bi epaietan ez bezala, apelazioak ezetsi eta Donostiako Epaitegiaren autoak eta epaiak berretsi zituen, haien legezko eta doktrinazko oinarriekin bat eginik. Ikus, esaterako, Auzitegi Nagusiaren epai hauek: 151/2016 zk., apirilaren 27koa; 212/2016 zk., maiatzaren 25ekoa; 235/2016 zk., ekainaren 2koa; 419/2016 zk., urriaren 7koa.

⁶⁰ Europako Kontseilua osatzen duten 47 estatuetatik, Gutuna 33k sinatu dute eta 25etan sartu da indarrean; hau da, 22 estatutan (% 47) oraindik ez dago indarrean. Europar Batasuna osatzen duten 28 estatutatik, Gutuna 17k berretsi dute, eta 11 dira oraindik berretsi ez dutenak (% 40).

- Nazioarteko arau juridiko bakarra (tratatua) delako «eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak» babesteko hizkuntza politikak garatzeko sortua eta onartu eta indarrean jartzen duten Estatuak behartzen dituen (25 estatu).

- Jarraipen eta kontrol tresnak dituen arau bat delako eta, horien baitan, kontuan hartzen dituelako, eragiten dien Estaturen balorazioa ez ezik, hizkuntza babestuetako gobernu, erakunde eragile, eragile politiko eta gizarte eragile askoren ikuspuntuak.

- Hizkuntza aniztasunarenugarra, estaturik gabeko hizkuntzena barne, Europako agenda politiko eta sozialean piztuta gordetzen duen arau bat delako.

Eta bere balio zalantza ezinarekin batera, har ditzagun gogoan dituen gabeziak eta mugak ere. Euskararen kasuan, eta hortik hasi behar dut, muga bat da Gutuna ez izatea aplikagarria Ipar Euskal Herrian, eta aplikazio desberdinak izatea Nafarroako Foru Komunitatean eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan.

Beharrezkoa ez ezik, egingarria da European hizkuntza eskubideen babes hobetzea eta urratsak ematen jarraitzea, eskubide horien aitortza oso eta lotesle bat izateko bidean, nahiz eta badakigun denbora, lana, aliantzak eta adostasuna landu beharko direla helburu hori lortuko bada. Gutunak oinarritzko rola du bide horretan, baina nahiko genuke irismen handiagoa izatea. Gutunaren subjektuak hizkuntzak dira, ez hiztunak eta hiztunen hizkuntza eskubideak, hain zuzen ere subjektu izan beharko luketenak, izan ere, hizkuntza egitate dira hiztunak baldin badaude. Baina, nolahi ere, eraginkorra da, aplikatzen duen «errezeta» hizkuntzaren erabilera bultzatzea baita. Gutunak Europako estatuetan jartzen du fokua: europar Gutuna da, Europako Kontseiluak onartua, baina bere destinatarioak Estatuak dira, ez da Europa espazio paneuropar gisa hartuta, ezta Europar gobernantzako erakundeak ere. Hizkuntzen Europako Gutunak, beraz, ez du «europar» obligaziorik, ez dio eragiten Estaturik gorako esparruari; eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen babes formal eta praktikorako Gutunetik eratorritako obligazioak Estatuari dagozkie —eta gobernu azpiestatale— beren jardun eremuetan. Beraz, nazioarteko tresna juridiko bat da, baina eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen babes eremua ez du kokatzen Europaren estaturik gaitik esparruan, baizik eta Estaturen esparruan. Ikuspegi horrek bere eragina mugatzen du, zeren Gutunaren hitzaurrean bertan definitzen diren helburuak benetan betetzeko Estatu politikak ez ezik hizkuntza politika paneuroparrak behar baitira.

Alde horretatik, komeni da bereiztea Gutunaren berezko esparrua, hau da, Europako Kontseilua, eta Europar Batasunaren esparrua, hau da, integrazio politiko-ekonomikoaren eta gobernantza komunaren esparrua, sistema politiko eta juridiko estaturik gaitik bat duena, erakunde desberdinetan oinarritua. Europako Kontseiluari dagokio Estatu sinatzaileek Gutuna berretsi eta bete dezaten zaintzea eta bere Estatu kideen artean Gutunaren sinatzaile gehiago izan daitezen saiatzea. Eta Europar Batasunaren gobernu erakundeei legokieke, politika, ekonomia, zerga, ingurumen, segurtasun, immigrazio... arloetan eta abarretan beren politikak eta ekintza programak definitzen dituzten bezala, definitzea baita ere hizkuntza politika paneuropar bat, EBko hizkuntza aniztasuna sustatzera eta zaintzera bideratua. Horretarako, Europako Kontseiluaren Gutuna oso erreferentzia baliagarria izan liteke Europar Batasunarentzat, nire iritziz bederen bera baita hizkuntza aniztasuna babesteko dagoen nazioarteko tresna juridiko onena eta aurreratua.⁶¹

Egia da, bestalde, mugak ez direla beti Gutunaren baitakoak; aitzitik, maiz, Estaturen testuinguru soziopolitikoaren gabeziaren ondorio dira, eta halakoetan Gutunak eraginkortasun mugatua du, edo hutsala, kasu batzuetan.⁶² Gutunetik eta bere aplikazio eremutik harantzago begiratzen badugu, Europar Batasunean ere nabariak dira aldarrikapen batzuen gabeziak. Adibidez, «Europa batua aniztasunean» aldarrikatzea, edo, Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunak 22. artikuluan dioen bezala, «Batasunak kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen ditu» aldarrikatzea (ulertuz hizkuntza aniztasuna eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetaraino heltzen dela), ez da inola ere uztartzen kontinenteko erakunde publikoek hizkuntza aniztasunaren kudeaketa estatu bakoitzaren eskuetan uztearekin (EBko estatu ofizialeko hizkuntzak direnean izan ezik), Europaren benetako hizkuntza aniztasuna (estaturen

61 Ikus BAZTARRIKA, Patxi (2009): *Babeli gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra*, op. cit., 79-96 or.

62 Stefan Oeter adituaren hitzetan (ikus «Gutuna bermatzea eraginkorra da Europako lege-ordenan», in ZENBAIT EGILE: *Eremu urriko hizkuntzen babes Europa: hamarkada berri baterantz*, op. cit.): «Hitzarmen horren barruan (Gutuna) hartutako obligazioak eraginkorrak izan daitezten, berrespen-tresnan hartutako konpromisoek zintzoak izan behar dute, horiekin bat etorri behar du nazioko legediak, eta nazioko organo exekutiboek eta judizialek eraginkorrak izan behar dute».

hizkuntzetatik harago doan aniztasun hori) «Europaren gaia» ez balitz bezala, «Estatu bakoitzaren gaia» balitz bezala (gainera, hori gabezia nahikoa ez balitz, Estatu espainiarrak ez du aniztasun hori hartzen «Estatuko gaitzat», baizik eta «erkidegoen gai arruntzat», Konstituzioaren elebitasun territorializatuaren interpretazio estuaren arabera, arestian aipatu dugun bezala). Hizkuntzen Gutunera eta haren aplikazio esparrura itzulita, esan nahi dut, baita ere, berak ere ezin duela bere kabuz ordeztu edo bete Europako erakundeen eta Espainiako Estatuaren hizkuntza politika propio baten falta. Muga hori are garbiagoa da aintzat hartzen badugu, asimetria soziolinguistikoa sakonak dauden testuinguru batean —hala gertatzen baita Espainian eta Europan— hizkuntza politikarik «ezak» berekin dakarrela hizkuntza politika bat «edukitzea» benetan, baina ez, inola ere, eraginkorra eta mesedegarria «eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzentzat». Gabezia, kasu honetan, ez dagokio Gutunari, Estatuari eta europar erakundeei baizik.

Gutuna «Estatuen arteko eta Estatuentzako» tratatu bat denez, ez du mekanismorik ezartzen Gutunaren beraren kudeaketa integratu eta bateratua burutzeko Europa mailan eta estatu kideen hizkuntza politiken gainetik. Eta Europar Batasunaren kasuan, Batasunaren hizkuntza politika propio bat eratu beharko litzateke, kontinentearen hizkuntza aniztasuna —Estatuen hizkuntza ofizialen aniztasunetik harago ulertua— babestera zuzendua, eta Europa (berr)eraikitzekeko prozesurako behar den errelato berriaren parte bihurtu beharko litzateke, herritarrei bete-beteen itsatsita legokeen Europa sozial baten muinen artean. Europak lagundu dezake jakobinismo linguistikoa behin betiko gainditzeko, sortu lezake paradigma berri askotariko bat (hizkuntza askotarikotasuna errealtate bat da) eta *askotarikozale* bat (ez hegemonista ez uniformizatzailea). Ildo horretan, Europako Kontseiluak gogor egin beharko luke lan bere kide diren Estatu gero eta gehiagok Gutunari bizkar emateari utzi eta, beraz, onartu eta berretsi dezaten. Eta Europar Batasunak ahalegindu beharko luke Europako Kontseiluari horretan laguntzen, batez ere Batasunekoak diren eta Gutuna oraindik sinatua ez duten herrialdeak hura onartzera bultzatuz, horiek guztiak Europako Kontseilukoak baitira aldi berean. Argitaratu berria den Europako Batzordearen Liburu Zuriaren ondoren badirudi erritmo desberdinetako Europa baterantz joango garela eta integrazio handiagoa nahi duten herrialdeek horretarako aukera izango dutela; beraz, testuinguru berri horretan, ez litzateke ulergarria ez onargarria esparru politiko eta sozialean Europa trinkoago baten alde dauden Estatuak Gutuna bere egin gabe izatea, europar mailan Gutunaren kudeaketa bateratuago baterako lehen urrats gisa. Hara erronka ederra!

Badira Estatuak Gutuna berresteari muzin egiten diotenak eta, beraz, Gutuna indarrean ez dutenak. Baina, halakoetan, Estatu horietan hizkuntza aniztasunaren sustapenean ari diren erakunde publiko eta gobernu azpiestatalak atxiki ahal izango lirateke Gutunera, eta horrek Gutunaren arabera beren politikak ebaluatzeko sistema bat abian jartzea ekarriko lieke.⁶³

Espainiako Estatura etorrira, nire iritziz, Gutunaren helburuak, printzipioak eta neurriak oinarri egokia izan daitezke Espainiak aurrerapauso bat emateko eta Konstituzioaren 3.3 artikulua garatzeko. Gutunaren ildotik jokatzeko gero, aukera sortuko litzateke Estatuak elebakartasun politikoa baztertzeko eta Espainiako Estatuak hizkuntza aniztasuna/komplexutasuna eta gaur egungo elebitasun territorializatu edo «erregionalizatu» hori positiboan onartu eta besarkatzeko, adibidez, Estatuaren erakunde zentralak Gutuna modu aktiboan bere eginez. Hori izan liteke datozen urteetarako Gutunarentzako erronka egoki bat, Espainiaren testuinguruan. Izan ere, hizkuntzen gaian, Espainia «ofizialak», hau da, Estatuak erakunde zentralen Espainiak, badu arazo bat aniztasunarekin, badu arazo bat Espainia «errealarekin» eta baita Espainia «legalarekin» ere. Espainia «errealarekin», hizkuntza aniztasuna errealtate bat delako Espainian, «Estatu bat, hizkuntza bat» formularen aldeko aniztasun egoera hori asko gustatu ala batere ez;⁶⁴ Espainia «legalarekin», Estatuaren erakunde zentralak segitzen dutelako ofizialtasun bikoitzaren eskakizunetara behar beste egokitu gabe —nabarmen utziz Gutunetik eta legeria autonomikoetatik eratorritako obligazioak betetzeko zailtasun handiak dituztela—,⁶⁵ eta Konstituzioan bertan aurreikusita dauden zenbait eginkizun garatu gabe jarraitzen dutelako. Uste dut Espainiako Estatuak erronka gogorra duela, esaterako, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak lau ebaluazio txostenetan Justiziaren eta Administrazio periferikoaren arloei buruz egin dizkion gomendioak betetzen.

63 Gutuna sinatzea eta berrestea Estatuak bakarrik dagokienez, proposatzen dudana balizko atxikipen hori zentzu politikoan esana dago, hau da, hizkuntza politikak Gutuna erreferente nagusitzat hartuta gauzatzeko konpromiso modura eta, betiere, erakunde edo gobernu bakoitzaren eskumenen esparruan, noski.

64 Espainiako populazioaren % 47 gaztelaniaz gainera beste hizkuntza bat duen autonomia erkidego batean bizi da.

65 Bederatzi Autonomia Estatuak, lege baliokidea barne, islatua dago hizkuntza aniztasuna, kasu batzuetan koofizialtasuna aitortuz eta, beste batzuetan, beste hizkuntzak espresuki aitortuz.

Beste erronka bat izan liteke Espainiako Gobernuak bere egitea «Gutunaren aplikazioa zaintzeko erantzukizun orokorra eta nagusia» (2. Txostena, 62 paragrafoa), zeren «Espainiako Gobernua da, nazioarteko zuzenbidearen arabera, berretsi dituen akordioak betetzen direla zaindu behar duena» (2. Txostena, 65 paragrafoa), kontuan hartuz «Estatuko agintariek dutela nazioarteko tratatuak betetzeko erantzukizun nagusia eta, gainera, Gutunean jasotako eginbehar batzuk Estatuko agintarien zuzeneko eskumenekoak direla» (4. Txostena, 71 paragrafoa). Ulertzen zaila dirudi, adibidez, Gutunaren 11. artikuluan aurreikusitakoaren kontra eginez, Estatuak ez ikusiarena egitea joandako urteetan EITBren seinalea Nafarroako Foru Komunitatean ondo jasotzea eragotzi duten ahalegin nabarmenen aurrean. 2. Txostenean, hain zuzen ere, «Adituen Batzordeak kontsideratzen du espainiar agintariek neurriak hartu beharko zituzketela hizkuntzak partekatzen dituzten autonomia erkidegoen artean luzaroan egon den koordinazio faltarekin amaitzeko» (66 paragrafoa).

Helburu desiragarria eta egingarria da Administrazio zentralaren eta hizkuntza gaietan eskumenak dituzten Autonomia Erkidegoen arteko koordinazioa eta elkarrekiko ekintza egituratzea, Konstituzioaren 3.3 artikulua erabiltzeko eta Estatuko erakunde zentralak eleaniztasunarekin bat datozen hizkuntza politika positiboak bultzatzeko. Gainera, horrelako koordinazio egituratu batek balioko luke Gutunaren kudeaketa partekatu bat izateko ere, non Autonomia Erkidegoek zuzeneko parte hartzea izango luketen Gutunaren jarraipenerako Estatuak bideratu beharreko prozesuan.

Gutziz arrazoizkoa dirudi pentsatzea Espainiako Estatuak atzeraezineko erronkatzat hartu beharko lukeela erantzun positiboa ematea Europako Kontseiluaren lau txostenetan egin dioten eskariari, eta horrenbestez Espainiako Estatuaren hizkuntza aniztasunaren aldeko pedagogia egitea, bereziki bere lurralde elebakarretan. 4. Txostenean «Adituen Batzordeak espainiar agintariei eskatzen die ekintza irmoa abiarazi dezaten eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza guztien ikusgarritasuna sustatzeko, hezkuntzaren eta hedabideen bitartez» (184 paragrafoa). Errealitateari uko egitea eta «besteak» gutxiesten intransigentzia eta diskriminazioaren iturri izaten dira beti.

«Hizkuntza aniztasunaren aldeko pedagogia soziala» egiteko ekintzaren barruan, Gutuna bera ezagutaraztea eta haren edukia Espainiako estatuko eragile politikoei, sozialei, ekonomikoei nahiz hezkuntza eta hedabideen arloetakoiei berariaz azaltzea bultzatu beharko litzateke. Izan ere, hutsaren hurrengoa da Espainian gizarteak, oro har, duen Gutunaren ezagutza.

Ebaluazioari dagokionez, hainbat bidetatik hobetu litekeela iruditzen zait. Gutunaren interpretazioak behar bezain malgua izan behar du «eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen» errealitate aniztunera egokitzeko. Hizkuntza horiek, okerreko interpretazio baten ondorioz etiketa edo izendapen bereko zakuan sartu ohi diren arren, errealitate eta estatus desberdinak izaten dituzte, eta horiek kontuan hartu behar dira, Gutunaren jarraipenean, beren babesa eta bizi-indarra ebaluatzerakoan. Horretarako ona izango litzateke adierazle sistema bat definitzea, Gutunaren betetze mailaren eta hizkuntzen bizi-indarraren ebaluazio egokiak egin ahal izateko, sistema malgu bat, hizkuntza bakoitzaren errealitatera egokitzeko modukoa eta arreta berezia Gutunaren II. zatiko hizkuntzei eskainiko liekeena, horien zaurgarritasuna kontuan hartuta. Adierazle sistema berri eta malgu horrek ahalbidetu beharko luke ebaluazioan esparru berriak jasotzea, urteotan garatu diren eta, horrexegatik, Gutunean jasotzen ez ziren errealitate berriak aintzat hartzearen: esate baterako, informazio eta komunikazio teknologia berriak, hartara, hedabideen arloa ebaluatzerakoan gaur egungo komunikaziorako euskarri guztiak kontuan hartuz.

Bestalde, desiragarria izango litzateke, baita ere, hamarkada hauetako ebaluazioen esperientzia baliatuz praktika egokien direktorio bat egitea. Era berean, komenigarria izango litzateke ahalegin handiagoa egitea ebaluazio epeak betetzeko. Txostenak hiru urtez behin egin behar dira, 15. artikulua agintzen duenez. Horren arabera, Espainiako Estatuaren kasuan bost txosten eduki beharko genituzkeen, baina lau bakarrik osatu dira. Agian nahikoa izango litzateke ebaluazioak bost urtean behin egitea, baina beti da garrantzitsua ezarrita dauden epeak betetzea, direnak direla.

Azkenik, alde guztietatik begiratuta ere, oso komenigarria izango litzateke Europako Kontseiluaren eta hizkuntza politikak bultzatzeko eskumena duten Autonomia Erkidegoen arteko harremana ahalbidetzea. Europako Kontseilua Estatuak osatua da, eta ez dut inola ere auzitan jartzen Kontseiluak eta Gutunaren Bulegoak harremana izan behar dutenik Estatu zentralarekin. Baina ez dago formazko nahiz legezko eragozpen gaindiezinik zentzumenak esaten duena abian jartzeko: harreman normalizatua eta egonkorra

egotea hizkuntza politiken eskumenak dituzten eta horiek garatzen dituzten administrazio autonomikoen eta Europako Kontseiluaren artean ere, Autonomia Erkidegoei partaidetza emanez Estatuaren eta Europako Kontseiluaren arteko solaskidetzan.

Bukatzen dut. Hizkuntzaren biziraupen eta bizi-indarrak bi protagonista ditu, beste ezer eta inoren gainetik: hiztuna eta hiztun komunitatea. Hain zuzen ere, bi horiengan dago —bi horiek hizkuntzari ematen dioten erabileran— hizkuntzaren bizi-indarraren giltza. Arauak behar-beharrezkoak dira, baina ez dute miraririk egiten. Nolanahi ere, hiztunek eta hiztun komunitateek estatus bat behar dute, lurzoru sendoa emango dien araubide bat; eta hizkuntza politika eraginkorrak behar dituzte, adostasun sozial eta politikorik zabalenean oinarrituak. Horretarako, eta mugak muga, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna tresna eraginkorra da, Europan dugun tresnarik eraginkorrena. Hortaz, zaindu eta hedatu beharreko baliabidea dugu Gutuna. Haren eraginkortasunerako ekarpen handia egin dute Adituen Batzordeek, urteotan egin duten lan bikaina dela medio.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, Iñaki. *Diversidad y convivencia lingüística: Dimensión europea, nacional y claves jurídicas para la normalización del euskara*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003.
- ARZOZ, Xabier. «La política lingüística de los Estados miembros y el Derecho de la Unión Europea». *Revista Española de Derecho Europeo*, 52 zk. (2014), 11-48 or.
- BASTARDAS, Alberto; BOIX, Emili (ed.). *¿Un Estado, una lengua? La organización política de la diversidad lingüística*. Barcelona: Octaedro, 1994.
- BAZTARRIKA, Patxi. *Babeli gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra*. Irun: Alberdania, 2009.
- COBREROS MENDAZONA, Edorta. *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*. Oñati: Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), 1989.
- JOAN I MARÍ, Bernat. *Català normalitzat en un món multilingüe*. Mallorca: Moll, 2009.
- MORENO FERNANDEZ, Francisco; RAMALLO, Fernando. *Las lenguas de España a debate*. Valencia: UnoyCero Ediciones, 2013.
- RUIZ VIEYTEZ, Eduardo J. «La CELRM, ¿un instrumento más para la protección de las minorías lingüísticas?: contenidos, límites y oportunidades». Hemen: EUSKARA KULTUR ELKARGOA (ed.): *Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias: una perspectiva sobre su aplicación*. Iruñea: EKE, 2003.
- RUIZ VIEYTEZ, Eduardo J. «Lenguas y Constitución. Una visión del derecho lingüístico comparado en Europa». *Revista Vasca de Administración Pública*, n.º 72 (2005), págs. 231-275.
- UNAMUNO, Virginia. «La CELRM en el Estado Español: estrategias formales, ¿consecuencias prácticas?». Hemen: EUSKARA KULTUR ELKARGOA (ed.): *Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias: una perspectiva sobre su aplicación*. Iruñea: EKE, 2003.
- URRUTIA LIBARONA, Iñigo. «Régimen jurídico de las lenguas y reconocimiento de la diversidad lingüística en el tratado por el que se establece una Constitución para Europa». *Revista de Llengua i Dret*, n.º 42 (2004), 231-271 or.
- URRUTIA LIBARONA, Iñigo. «Konstituzio europarra eta hizkuntza aniztasuna». *Revista Vasca de Administración Pública*, 72 zk. (2005), 277-307 or.
- URRUTIA LIBARONA, Iñigo. «Perfiles lingüísticos en la nueva oficina judicial: planificación lingüística en la administración de la Administración de Justicia». *Revista Vasca de Administración Pública*, 87-88 zk. (2010), 961-1003 or.
- VERNET, Jaume; PUNSET, Ramón. *Lenguas y Constitución*. Madrid: Iustel, 2007.
- ZENBAIT EGILE. *Eremu urriko hizkuntzen babesa European: hamarkada berri baterantz*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2011. [Liburu honen jatorrizko bertsioa Europako Kontseiluak argitaratu zuen ingelesez eta frantsesez, eta hamalau artikulu jasotzen ditu, hamalau egilerenak, Hizkuntzen Europako Gutunaren hainbat alderdiri buruzko gogoetaz eta proposamenez osatuak. Jatorrizko tituluak: *Minority language protection in Europe: into a new decade* (en) eta *La protection des langues minoritaires en Europe: vers une nouvelle décennie* (fr), 2010eko apirila.]

Kontsultatutako dokumentuak

Europako Kontseilua: *Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias*, BOE, 222 zk, 2011-09-15. Euskarazko bertsioa: *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna*. Hemen:

www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/celrm_02101992_eu-2.pdf.

Europako Kontseilua: Gutunak Espainian duen aplikazioari buruzko lau ebaluazio txostenen (2005, 2008, 2012 eta 2016) gaineko dokumentazioa, non jasotzen baitira hizkuntzek Espainian duten egoeraren gaineko txostenak, Adituen Batzordearen txostenak, Espainiako Gobernuaren oharrak eta Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak egindako gomendioak. Hemen: www.coe.int/minlang.